

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

R 7/2013 ebazpena

8/2008 eta 13/2010 espediente elkartuak

Vitoria-Gasteizen, 2013ko apirilaren 24an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna batzordeburu duela eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese jaunak batzordekide dituela, honako erabakia hartu du:

## ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren aurrean aurkeztutako gatazken gainekoa, ERAKUNDE1 erakundeari (IFK: (LETRA)ZZZZZZZZ) aplikatu behar zaion araubidea eta erakunde horren gaineko ikuskapen eskumena zein administrazioek daukan ebazteko. Aipatutako bi gatazkek Arbitraje honen aurrean izapidetu dira, 8/2008 eta 13/2010 zenbakidun espedienteen bidez.

## I. AURREKARIAK

1. Bi gatazken espedientei dagokienez, honako aurrekari hauek ditugu:

### A. 8/2008 gatazka

a) Gatazka honen jatorria 2003ko urrikoa da. Izan ere, hilabete horretan, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (ZAEA) ikuskapen jarduerak egin zituen Z/ZZ talde bateratuaren inguruan. Talde horren sozietate nagusia ERAKUNDE2 erakundea da (IFK: (LETRA)ZZZZZZZZ). Ikuskapena partziala izan zen, talde bateratua zein erakundek osatu behar zuen jakiteko helburuz eta, hala

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

bazegokion, zuzenketa egokia egiteko taldearen zerga oinarrian eta 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergari atxikitako kitapena bideratzeko.

Aipatutako jarduera horien ondorioz, 2004ko maiatzaren 31n, Z/ZZ zerga taldeko sozietate nagusia den ERAKUNDE2 erakundeak AZZ-ZZZZZZZZ desadostasun akta sinatu zuen. Agiri horretan adierazi zen ERAKUNDE1 erakundea (IFK: (LETRA)ZZZZZZZZ) (hemendik aurrera, ERAKUNDE1 erakundea) bidegabe baztertu zutela arestian esandako zerga taldetik 2002ko ekitaldian, 2001eko ekitaldian, erakundeak 6 milioi eurotik gorako negozio bolumena izan zuelako eta eragiketen guztizko bolumenaren % 75 baino gehiago lurralde erkidean gauzatu zuelako, Sozietateen gaineko Zergaren aitortzean jasotakoaren arabera (200 eredu).

2004ko irailaren 17an, ZAEAk aktatik eratorritako kitapena bideratu zuen, baina ERAKUNDE2 erakundeak berraztertze errekurtsoa jarri zuen horren aurka. Hala, errekurtsoren bidea hasi eta gerora Arbitraje Batzorde honen jardura ere tartean sartu zen, geroago azalduko dugun moduan.

b) Aipatutako jarduketan aurrean, 2003ko urriaren 31n, Bizkaiko Foru Aldundiak idatzia bidali zion Ogasun Ministerioaren Lurralde eta Erkidegoko Zerga Politikarako Idazkaritza Nagusiari lehen aipatutako datan. Idatzi horretan argudiatutako oinarrietan funtsaturik, BFAk adierazi zuen ERAKUNDE1 erakundearen gaineko arautze eta ikuskatzen eskumena Bizkaiko Foru Ogasunari zegokiola, ERAKUNDE2 erakundea nagusi zuen zerga taldeko kidea ez zelako; beste alde batetik, BFAk ZAEAREN Ikuskapen Bulego Nazionalarekiko eskumen gatazka adierazi zuen Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen aurrean, eta Estatuko Ogasun Ministerioari nahiz ZAEARI eskatu zien Ekonomia Itunaren 66.2 artikulua xedatutakoa bete zezatela.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Eskari horren ustezko gaitzespenaren aurrean, Bizkaiko Foru Aldundiak errekurtsua jarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, eta ZZZ/2004 zenbakia emanda izapidetu zen. 2006ko otsailaren 22ko epaiaren bidez, Salak errekurtsua onartu zuen, ZAEAk burututako jarduketak baliogabetu zituen errekerimendua egin zenetik aurrera eta artean eratu gabe zegoen Arbitraje Batzordearen eskumena aitortu zuen.

Estatuko Administrazioak kasazio errekurtsua jarri zuen (ZZZZ/06 zenbakia) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren aurka. Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2008ko uztailaren 10eko epaiak ebatzi zuen errekurtsua. Salak zati batez onartu zuen errekurtsua eta administrazioaren jarduketa eztabaidagarriak baliogabetu zituen ebatzi zuelako Ekonomia Itunaren 66.2 artikulua ez dela aplikagarria (artikulu horrek xedatzen duenari jarraiki, eragindako administrazioek jarduketak eten behar dituzte gatazka sorrarazten den unean) Arbitraje Batzordeak parte hartzen ez duenean, hau da, epaitutako egitatean gertatzen zen moduan. Beste alde batetik, Estatuaren uzia, eztabaidagai nagusia ZAEAREN alde ebaztea, alegia, ezetsi zuen, eta jarduketok bideratzeko eskumena aitortu zuen, eztabaidagai nagusia eskabidean azaldu ez zela arrazoituta. Geroago aztertuko dugun legez, adierazpen hori erabakigarria izan zen orain aztergai darabilgun 8/2008 gatazkaren bilakaeran, Auzitegi Gorenak berariaz aipatzen duela eta.

c) Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeko kideak Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2007ko uztailaren 30eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez izendatu ziren. 2008ko martxoaren 14an, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak idatzia helarazi zion Arbitraje Batzordeari eta data horren aurretik azaldutako gatazka guztien inguruko espedienteak bidali zizkion, besteak beste, ERAKUNDE1 erakundeari zegokion espedientea. Gatazka horri buruzko dokumentazio bakarra Bizkaiko Foru Ogasuneko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

zuzendariak 2003ko urriaren 31n Ogasun Ministerioari igorritako gutuna zen. Idatzi horren berri aurreko b) atalean eman dugu. Arbitraje Batzordearen aurrean agertu baino lehen, Bizkaiko Foru Aldundiak berriro ere jo zuen Ogasun Ministeriora, horko horretan, Autonomia Erkidegoekiko Finantza Koordinazioaren Idazkaritza Nagusira, 2007ko uztailaren 11ko idatzia dela bide. Idatzi hori batzuetan aipatzen da espedienteen 8/2008 gatazka mahairatu zuen idatzi gisa. Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztu ez zen idatzi horretan, 2003ko urriaren 31ko testua ageri da oso-osorik eta, gainera, hauxe gehitu zion: "gogorarazi nahi da 2003ko urriaren 31ko idatziaren bitartez beste eskumen gatazka bat bideratu zela erakunde eta zerga ekitaldi berberen inguruan, Ekonomia Itunean arautzen den Arbitraje Batzordearen aurrean; era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zen Ogasun Ministerioaren aurrean, indarrean dagoen Ekonomia Itunaren 66. artikulua xedatutakoa aplikatu nahi ez duelako". Horren ondotik, idatziak aipatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak errekurtsoa onartu zuela 2006ko otsailaren 22ko epaiaren bidez eta horren kopia daroa erantsita. Azkenik, berriro ere eskatu zion ZAEARI jarduketak eten zitzala eta epaia hertsiki bete zezala.

2008ko maiatzaren 12ko bilkuran, Arbitraje Batzordeak onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko martxoaren 14ko idatzian jasotako gatazka guztiak izapidetzea. ERAKUNDE1 erakundeari zegokion espedientearen izapidetzea, ordea, ez zuen onartu, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2006ko otsailaren 22ko epaiaren aurka jarritako ZZZZ/06 kasazio errekurtsoa ebatzi barik zegoenez, ulertzen baitzuen Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren (EIABA) 9. artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoa aplikatzea. Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onetsi zuen araudia eta, aipatutako artikuluari jarraiki, ezin da gatazkarik mahairatu justizia epaitegiek ebatzi gabe dituzten auzien gainean. ERAKUNDE1 erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

jarri zuten Auzitegi Goreneko Hirugarren Salaren aurrean erabaki horren aurka eta ZZZ/2008 eta ZZZ/2008 zenbakiak emanda izapidetu ziren.

Errekurtsoak artean ebatzi gabe zeudela, Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salak 2008ko uztailaren 10eko epaia eman zuen, gorago aipatu duguna. Arestian esan moduan, Salak baztertu zuen epai horretan eztabaidagai nagusiari, hau da, eztabaida piztu zuten ikuskapen jardueren eskumenari, buruzko irizpenik ematea, errekurtsu egileak horren inguruko epairik ez zuelako galdatu eskabidean. Zortzigarren zuzenbideko oinarrian, Salak ondokoa adierazi zuen:

"Ikuskatzeko eskumenaren inguruko auzia ez zuen aztertu errekurtsua izapidetu zuen Salak; izan ere, errekurtsuaren auzia gatazka gertatuz gero Arbitraje Batzordearen aurrean jarraitu beharreko prozedurari men ez egitea zetzan, eta beraz, ez da bidezkoa horren gaineko erabakirik ematea, Arbitraje Batzordeak erabakitzen duenari kalte egin gabe, gaur egun eratuta baitago.

Sala honek jakin duenez, Arbitraje Batzordeak, 2008ko maiatzaren 12ko bilkuran, ez zuen eskumen gatazkari buruzko auziaren izapidetzea onartu, uste baitu, Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurkako kasazio errekurtsua jarri eta onartu denez, Sala honek batzordeak ezarritako doktrina zuzendu eta auzia bideratzeko eskumena badaukala aitortu. Aitorpen hori, gainera, sendoagoa izango litzateke Konstituzio Auzitegiaren 26/2008 epaiaren aurrean. Hala eta guztiz ere, demandan adierazitako uziak direla eta, gogoratu behar da auzialdiko Salak ezin izan zuela erabakirik hartu eskumen eztabaidagarriaren inguruan, esandako auzia ez zegoelako justizia epaitegiek ebatziko zutenaren zain".

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Epaia ezagututa, ERAKUNDE1 erakundeak idatzia bidali zion Arbitraje Batzordeari 2008ko irailaren 28an, 2008ko maiatzaren 28an izapidetzea ez onartzeko erabakia atzera bota zezala. Arbitraje Batzordeak eskabidea onartu zuen eta 2008ko azaroaren 10eko erabakiaren bidez, aurreko erabakia baliogabetzea ebatzi zuen. Hori ikusita, ERAKUNDE1 erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak baliogabetutako erabakiaren aurkako errekursoak bertan behera utzi zituzten.

d) Bizkaiko Foru Aldundiak, hasiera batean, 2003ko urriaren 31n, eta geroago, orduan eratuta zegoen Arbitraje Batzordearen aurrean mahairatutako gatazkaren bilakaera aurrera zihoan artean, ERAKUNDE2 erakundearen 2004ko irailaren 17ko kitapenaren aurkako errekursoak ere aurrera egin zuen. Kitapenak AZZ-ZZZZZZZZ aktan zeukan oinarria eta, hasiera batean, ondoko erabakiak hartu ziren horretan:

- Ikuskapenaren Bulego Nazionalaren 2004ko azaroaren 4ko erabakia, berraztertzeke errekursoa zati batez baietsi zuena.

- Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiaren 2008ko urtarrilaren 31ko ebazpena, RG ZZZ/2005 zenbakidun erreklamazioaren gainekoa. Ebazpen horren bidez, ordurako eratutako zegoen Arbitraje Batzordearen aurreko eskumen gatazka aurkeztu zela kontuan harturik, AEANek erreklamazioaren izapidetzea etetea erabaki zuen, Ekonomia Itunaren 66.Bi artikuluan xedatutakoari jarraiki.

- AEANen 2008ko urriaren 23ko ebazpena. Ebazpen horren bidez, Arbitraje Batzordeak gatazkaren izapidetzea onartu ez zuela (oraindik indarrean) ikusirik eta Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 10eko epaia kontuan harturik, erreklamazioaren izapidetzearen etena bertan behera utzi eta, erreklamazioaren edukiak aztertuta, gaitzetsi zuen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Arbitraje Batzordeak azken ebazpenaren berri izan zuen ZAEAREN 2009ko otsailaren 12ko alegazio idatziaren bidez. Idatzia Batzordearen erregistroan sartu zen hurrengo egunean, hau da, otsailaren 13an, eta ebazpenaren kopia erantsita zekarren. Ebazpena ikusita, Arbitraje Batzordeak P 3/2009 erabakia hartu zuen 2009ko maiatzaren 15ean; bertan esaten zenez, Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 10eko epaiari jarraiki, gatazkaren izapidetzea ez onartzeko hasierako erabakia baliogabetu ondoren, Arbitraje Batzordeak eskumen eskusiboa berreskuratu zuen gatazkaz jakiteko. Hortaz, Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiak horren berri jakin izan balu, Arbitraje Batzordearen alde inhibititu beharko zukeen. Horren ondorioz, Arbitraje Batzordeak eskumen eskusiboa adieraztea eta horri buruzko komunikazioa bidaltzea erabaki zuen Administrazioarekiko Auzien Auzitegira, aurrekari egokien kopia erantsita. Izan ere, aipatutako auzitegiak aztertzen ziharduen ERAKUNDE2 erakundeak AEANen 2008ko urriaren 23ko epaiaren kontra jarritako errekurtsua.

Auzitegiak, hain zuen ere, Auzitegi Nazionalaren Administrazioarekiko Auzien Salak, Bigarren Sailak, aipatutako errekurtsua, 477/2008 autoen zenbakiduna, ebatzi zuen 2011ko martxoaren 23ko epaiaren bidez. Epai horretan, Salak zehaztasun handiz azaltzen ditu auziak izandako izapide korapilatsuak, bai eta Arbitraje Batzordearen aurreko gatazkaren zioz sorrarazitakoak. Izapide horien artean, besteak beste, oraintsu aipatu den Arbitraje Batzordearen erabakia jasotzen da. Salak erabateko irizpena eman zuen auziaren gainean, honakoa adierazita: "Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiak ez dauka inolako eskumenik sorrarazitako auziaz ebazteko"; gainera, ondokoa baieztatu zuen: "Salak ez dauka zalantza izpirik, Bizkaiko Foru Aldundiak 2008ko martxoaren 14an eskumen gatazka mahairatu zuenetik, Arbitraje Batzordea dela auziaren gaineko irizpena emateko legezko eskumena daukan erakunde bakarra dela, Euskal Autonomia Erkidegorako Ekonomia Itunaren Legearen 66.Bi artikulua eta Arbitraje Batzordearen Araudia onetsi zuen abenduaren 18ko 1760/2007

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Errege Dekretuaren 3. artikulua xedatutakoari jarraiki. Horiek horrela, Salak honakoa ondorioztatu zuen:

"Horren ondorioz, AEANek ez zeukan eskumenik ERAKUNDE1 erakundea Z/ZZ zerga taldean sartzea bidezkoa ote zen erabakitzeko, 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zerga zela eta. Horregatik, AEANen ebazpenak erabateko deuseztasun akatsa dakar zuzenbidean; izan ere, berriro esan behar baita, Arbitraje Batzordearen aurreko eskumen gatazka aurkeztu denez gero, erakunde horrek dauka auzia ebazteko eskumen eksklusiboa".

Estatuko abokatuak horren aurka arrazoitutako argudioa, hau da, AEANen 2008ko urriaren 23ko ebazpena Arbitraje Batzordearen 2008ko azaroaren 10eko ezeztapen erabakia baino lehenagokoa delako argudioa, baztertu zuen haxe erantzunda: maiatzaren 12ko erabakia, gatazkaren izapidetzea ez onartzekoa, ez zen irmoa, horren aurkako kasaziozko errekurtsioa abian zegoelako (ZZZ/2008 eta ZZZ/2008 zenbakidun errekurtsioak).

Beste alde batetik, ERAKUNDE2 erakundeak argudiatu zuen ZZZ/08 zenbakidun administrazioarekiko auzi-errekurtsioari 2009ko urtarrilaren 21eko autoak azkena eman ziola. Hala, errekurtsioa amaitutzat jo zen ERAKUNDE1 erakundeak atzera egin zuelako. Atzera egitea gertatu zen Arbitraje Batzordeak 2008ko maiatzaren 12ko ebazpena atzera bota zuenean, hain zuzen ere, Auzitegi Gorenaren aurreko administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren xedea zuena. Beraz, errekurtsio horrek xedea galdu zuen Arbitraje Batzordeak gatazkaren proposamena izapidetzea onartu zuenetik, hots, 2008ko azaroaren 10etik. Salak ondokoa adierazi zuen:

"Ildo horretan, Sala honek auzi-jartzailearen baieztapena berresten du. Esan nahi baita, Arbitraje Batzordeak 2008ko maiatzaren 12ko ebazpena



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

atzera botatzen duenean, ez duela eskumen gatazka berria mahairatzen, ezpada, 2008ko martxoaren 14an aurkeztutako gatazkaren izapidetzea onartzen duela eta, horren ondorioz, Ekonomia Itunaren Legearen 66.Bi artikulua eta Arbitraje Batzordearen Araudiaren 15.1 artikulua xedatzen duten jarduketan etenaren ondoreak indarrean hasten direla 2008ko martxoaren 14tik. Horren haritik, gogorarazi behar dugu Arbitraje Batzordearen 2008ko azaroaren 10eko ebazpenak honetaz jarduten duela: '...aipatutako gatazkaren izapidetzea onartzea', hau da, sasoi zenean aurkeztu zen gatazkaren izapidetzea onartzea, ez gatazka berri baten izapidetzea onartzea.

Horren frogagarri gisa eta, beraz, 2008ko martxoaren 14an aurkeztutako gatazkaren aurrean bagaudela egiaztatze aldera, orain auzibidean dagoen Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiaren ebazpenaren berri izan ostean, Arbitraje Batzordeak berariaz adierazi zuen Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiak inhibitu behar izan zuela Arbitraje Batzordearen alde, eta batzordearen eskumena aitortu zuen auzibidea ebazteko".

Beste alde batetik, Auzitegi Nazionalaren epaiak dioenez, "aztergai darabilgun AEANren ebazpenak iskin egiten dio Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 10eko Epaiaren zortzigarren oinarri juridikoan ageri denari. Epai horretan, auzitegiak argi eta garbi dio ez duela eskumen gatazka aztertuko, hori ez delako izan auzitegi horren aurrean aurkeztutako errekursoaren xedea eta beraz, Arbitraje Batzordeak gatazka ezagutu eta ebatzi beharko duela, artean eratuta zegoenez gero. ... Azken batean, nahiz eta Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiak jakin Auzitegi Gorenak Arbitraje Batzordearen eskumenaren gaineko irizpena emanda zuela, gatazka aztertu eta jarritako erreklamazio ekonomiko-administratiboa gaitzetsi zuen...".

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Epaiak gaineratzen duenez, erreklamazioaren izapidetzearen etena bertan behera uztea, 2008ko urtarrilaren 31n erabaki zela eta, kontraesanean erortzen da AEANek etena erabakitzeko erabili zuen arrazoiarekin, hau da, Arbitraje Batzordearen eraketarekin:

“Etenduraren erabakia sorrarazi zuen arrazoa gatazkaren beraren aurkezpena eta Arbitraje Batzordearen eraketa izan baziren, ez dago funtsezko arrazoibiderik erabakia bertan behera uzteko; izan ere, Arbitraje Batzordearen 2008ko maiatzaren 12ko hasierako ebazpena ez zen irmoa eta, funtsean, Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 10 Epaiak ezarri zuen, orain auzitan dagoen AEANen ebazpena eman baino lehen, Arbitraje Batzordeak ezagutu eta ebatzi behar zuela aurkeztutako eskumen gatazka ("*... Arbitraje Batzordeak erabakitzen duenari kalterik egin gabe, artean eratuta baitago*")".

Azkenik, Estatuko Abokatuak argudiatu zuen ezen, Ekonomia Itunaren 66.Bi artikulua urratzearen zioz, AEANek egindako jarduketak baliogabetzen zituen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpena eta Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 10eko epaia kasatzen zirenez, bere iritziz, zuzenbidean onartzeko bidea ematen zuen kitapenaren aurkarapenaren erabakia, AEANen aurrean egin behar zen, auzitegi horrek eskumen nahikoa zuelako. Auzitegi Nazionalaren Salak erantzun zuen legez, Auzitegi Gorenak aipatutako epaian ezarritakoa hauxe dela: Ekonomia Itunaren 66.Bi artikulua ezin zen aplikatu orduan eztabaidatutako auzietan, Arbitraje Batzordeak jarduten duenetan bakarrik balio baitu, baina batzordea sasoi horretan ez zegoen eraturik. Gero, batzordea eratu ondoren, manu hori indarrean hasi zen eta, Salak era inplizituan adierazi zuenez, erakunde ekonomiko administratiboan jardunari ere eragiten zien.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008 eta 13/2010	R7/2013	2013/04/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena

Estatuko Administrazioak kasazio errekurtsua aurkeztu zuen Auzitegi Nazionalaren 2011ko martxoaren 23ko epaiaren aurka, Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salaren aurrean, eta ZZZZ/2011 zenbakiaren bidez izapidetu zen. Esandako Salaren Bigarren Sailaren 2012ko azaroaren 12ko epaiak errekurtsua gaitzetsi zuen, ondoan laburrean jaso diren arrazoibideei jarraiki: AEANek erreklamazioaren izapidetzearen etendura indargabetu zuen eskumen gatazkaren izapidetzea onartu ez zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen ebazpena atzera bota baino lehen, eta erreklamazioa gaitzetsi zuen, nahiz eta ZZZ/2008 zenbakidun administrazioarekiko auzi-errekurtsua ebazteke zeudela bazekien. Horrela jokatuta, "bistakoa da Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusia, ebazpen hori emanda, nahastu zela Ekonomia Itunaren Legearen 66.1 artikulua Arbitraje Batzordeari esleitutako eginkizunetan... Hori dela eta, jarduera horrek ekarritako ondorio juridikoa bada, argi eta garbi, Salak *a quo* edo hasieratik hartutakoa laugarren oinarriaren azkenurreko paragrafoan"; bertan adierazten da AEANek ez daukala eskumenik Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztutako auziak ebazteko, batzordeak daukalako horretarako eskumen eskusiboa. Epaiaren amaieran, ondoko paragrafoa agertzen da:

"Izan ere, ERAKUNDE1 erakundeak Arbitraje Batzordearen 2008ko maiatzaren 12ko erabakiaren aurka Auzitegi Gorenaren Hirugarren Sala honen aurrean jarritako 02/ZZZ/2008 zenbakidun administrazioarekiko auzi-errekurtsuaz jakinda, Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiak ez zuen indargabetu behar izan 2008ko urtarrilaren 31ko ebazpenaren bidez erabakitako etendura, nahiz eta Bizkaiko Foru Aldundiak jarritako 02/ZZZ/2008 zenbakidun administrazioarekiko auzi-errekurtsuaz ez jakin, eskumen gatazkaren izapidetzea ez onartzeko erabakiaren irmotasuna behar bezala egiaztatu arte, une horren aurretik, gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztu dela ulertu behar delako, eta beraz, guztiz

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

aplikagarria da Euskal Autonomia Erkidegorako Ekonomia Itunaren Legearen 66.2 artikulua".

e) Orain arte azaldu ditugun jarduketan sorta luze, korapilatsu eta nekezaren emaitza bakarra izan da Arbitraje Batzordearen eskumena behin betiko ezartzea, hasiera batean, Bizkaiko Foru Aldundiak mahairatutako gatazka ezagutze aldera, AEANek ERAKUNDE1 erakundearen gaineko ikuskapen jarduketak egiteko daukan eskumenaz ebazteko. Ikuskapen jarduketa horiek AZZ-ZZZZZZZZ aktan dokumentatu ziren, eta akta horretan oinarrituta, 2004ko irailaren 17ko kitapen erabakia eman zen. 8/2008 zenbakia esleitu zitzaion gatazka horren izapidetzea Arbitraje Batzordearen 2008ko azaroaren 10eko erabakiari jarraiki has izen, erabaki horrek baliorik gabe utzi baitzuen gatazkaren izapidetzea ez onartzeko Arbitraje Batzordeak hartutako erabakia, 2008ko maiatzaren 12an.

Arbitraje Batzordeko lehendakariaren 2009ko urtarrilaren 8ko probidentzia bidez, modu formalean jakinarazi zitzaion AEANi gatazkaren aurkezpena eta epatu zitzaion alegazioak aurkez zitzala hilabeteko epean, hori guztia Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 16.2 artikulua xedatzen duenari jarraiki. AEANek alegazioak egin zituen zuzendari nagusiaren idatzi baten bitartez, 2009ko otsailaren 12an, eta idatzi hori hurrengo egunean, hots, otsailaren 13an, sartu zen Arbitraje Batzordearen erregistroan.

Espedientearen instrukzioa amaituta, aditzera eman zen gatazkan parte hartzen zuten administrazioek eta ERAKUNDE1 erakundeak alegazioak egin zitzaten, 2013ko urtarrilaren 30ean bidalitako eginbideen bitartez. Izapidetzeak iraun duen artean, Bizkaiko Foru Aldundiak egin ditu alegazioak, Koordinazio eta Laguntza Teknikoko zuzendariordearen 2013ko otsailaren 25eko idatzia dela medio, Arbitraje Batzordean otsailaren 27an erregistratu zen moduan, bai eta ERAKUNDE1 erakundeak, 2013ko otsailaren 14ko data daukan idatzi bat

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

dela medio, Posta Zerbitzuan hurrengo egunean, 15ean, zigilatuta. AEANek ez zuen alegaziorik egin.

f) 8/2008 gatazkaren izapidetzeak iraun duen aldi luzean, AEANek beste ikuskapen jarduketa batzuk gauzatu zituen ERAKUNDE2 erakundean, 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zerga zela eta, baina jarduketok ERAKUNDE1 erakundeari zuzenean eragin zioten. AEANen jarduketak gatazkan parte hartzen duten alderdien idatzietan agertzeaz gain, 13/2010 gatazka berria sorrarazi dute. Azken gatazka aurrekoarekin uztartzen da.

Arestian aipatutako jarduketak 2006ko otsailaren 15ean hasi ziren, eta horien bidez, ZAEAk Z/ZZ zerga taldearen inguruko azterketa orokorra egin zuen. Arestian azaldu dugun moduan, ERAKUNDE2 erakundea nagusia da zerga talde horretan. Jarduketan emaitza agiri bidez jaso zen, aztergai darabilgun gatazkari dagokionez, ondoko desadostasun aktetan:

Zenbakia	Data	Ekitaldia
<i>AZZ-ZZZZZZZZ</i>	2008-05-06	2001
<i>AZZ-ZZZZZZZZ</i>	2008-06-26	2002

Aktetan oinarrituta, Zergadun Handien Ordezkaritza Nagusiaren Zerga eta Aduana Kontroleko Bulegoak kitapen erabakiak hartu zituen 2008ko irailaren 29an eta 2008ko azaroaren 4an. Erabaki horietan, ERAKUNDE1 erakundea zerga taldean agertzen da. ERAKUNDE1 erakundea Z/ZZ baterakuntza taldekoa ote zen 8/2008 gatazkan azaldu zen eta berriro ere agertu zen, beste arrazoibide batzuk emanda, 13/2010 gatazkan. Azken horren aurrekariak ondoan azalduko ditugu.

## B. 13/2010 gatazka

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008 eta 13/2010	R7/2013	2013/04/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena

a) Bizkaiko Foru Aldundiko Idazkari Nagusi Teknikoak aurkeztu zuen 13/2010 gatazka, 2010eko apirilaren 16ko idatzi baten bidez. Idatzia data horretan erregistratu zen Arbitraje Batzordean eta bertan jakinarazi zen Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusiak 2010eko apirilaren 14ko erabakiz onartutako gatazka aurkeztuko zuela foru erakundeak. Erabakiaz gain, Foru Ogasunaren Ikuskapen Zerbitzuaren 2010eko martxoaren 8ko txostena bidali zen eta, txosten horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak gatazkaren aurrean zuen jarrera azalduta zegoen. Era berean, 2010eko martxoaren 9ko inhibizio errekerimenduaren kopia erantsi zitzaion erabakiari. Eskaria hurrengo egunean, hau da, martxoaren 10ean, jakinarazi zitzaion ZAEARI.

Errekerimendu horren nondik norakoak gatazkaren inguruko errekurtsioa jartzeko erabakian agertzen dira hitzez hitz eta ondokoak dira: ZAEARI inhibitzeko eskatzen zaio

"(LETRA)ZZZZZZZZ IFK daukan ERAKUNDE1 erakundearen 2001eko eta 2002ko ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergari dagozkion egiaztapen eta ikerketa jarduketak egin ez ditzan, kasu bietan uste baita lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketen bolumena zehazteko irizpideak, Sozietateen gaineko Zergaren ondoreetarako, ez direla bidezkoak Zuzenbidean, tarifa integralaren eraginpeko bezeroei gagozkiela, eta zehatz-mehatz, 2002ko ekitaldiari dagokiola, jarduketa horiek gauzatzeko eskumena Bizkaiko foru Aldundiari dagokiolako, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartu zuen eta indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegorako Ekonomia Itunean xedatutakoari jarraiki. Gainera, adierazi behar da auzia ebazteke daukala Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, 8/2008 gatazka dela eta..."

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Sozietateen gaineko Zergaren ondoretarako, lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketen bolumena kalkulatzeko irizpideak Zuzenbidearekin bat ez datozelako baieztapena, tarifa integralaren eraginpeko bezeroei dagokienez, lotuta dago ERAKUNDE1 erakundeak bolumenaren zenbatekoa zehazteko proposatutako moduarekin. Erakundeak aipatutako bolumenaren zenbaketa proposatu zuen arestian esandako Z/ZZ baterakuntza taldeari buruzko egiaztapena abian zen bitartean eta Bizkaiko Foru Aldundiak bat egin zuen zenbaketa horrekin. Auzi hau dagoeneko agertu da 8/2008 gatazkan, eta ZAEAk, 2009ko otsailaren 12ko alegazioen idatzian, zein ERAKUNDE1 erakundeak, 2013ko martxoaren 14ko idatzian, jorratu zuten. Bigarren kasuan, arrazoi handiagoz azaltzen da, oraintsuko data daukalako, erakundeak 13/2010 gatazka dela eta egindako idatziaren ondokoa; baina eztabaidagai nagusi bihurtu zen azken gatazkan, aurrerago azalduko dugun legez.

b) Gatazka aurkeztu ondoren, ZAEAk alegazioak egin zituen, 2011ko irailaren 29ko idatziaren bidez. Idatziak Posta Zerbitzuaren Zigilua darama, hurrengo egunean datatuta, hau da, 30ean. ZAEAk, alde batetik, lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketen bolumena kalkulatzeko aldera, Bizkaiko Foru Aldundiak eta ERAKUNDE1 erakundeak proposatzen duten modua ez zuen onartu; eta beste alde batetik, adierazi zuen ERAKUNDE1 erakundearen aurreko ikuskapen jarduketak egiteko eskumena bazuela 2002 ekitaldian. Azkenik, ZAEAk ukatu zuen egindako jarduketek urratzen dutela eskumen gatazka aurkeztearen ondorioz sorrarazitako eteteko betebeharra.

c) Espedientea aditzera emateko izapidean, alegazio idatzia aurkeztu zuten Bizkaiko Foru Aldundiak, 2012ko maiatzaren 23an (egun horretan bertan eman zitzaion sarrera erregistroa Arbitraje Batzordean) eta ERAKUNDE1 erakundeak, 2012ko ekainaren 7an (egun horretan bertan eman zitzaion sarrera erregistroa Arbitraje Batzordean). Idatzi bietan, alegazioak aurkeztutako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

erakundeak bat datozela agertu eta ZAEAk azaldutako arrazoiarena aurka egin zuten.

2. 2013ko martxoaren 27ko bilkuran, Arbitraje Batzordeak 8/2008 eta 13/2010 espedienteak elkartzea erabaki zuen.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Orain aztertzen dihardugun metatutako bi gatazketan proposatzen diren auziak ez dira aldatu lehen gatazka, 8/2008 gatazka, hain zuzen ere, mahairatu zenetik. Auzi horiek ERAKUNDE1 erakundearen Sozietateen gaineko Zergari dagozkio, 2002ko ekitaldian, eta ondokoak dira: 1) Aplikatu beharreko araudia estatukoa ala Bizkaiko Lurraldeko Historikokoa zen, eta 2) ERAKUNDE1 erakundea ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioari ala Bizkaiko Foru Ogasunari zegokion. Beste alde batetik, lehen auziaren erantzunak ebatziko luke, halaber, ERAKUNDE1 erakundea Z/ZZ zergamultzokoa ote den (non sozietate nagusia ERAKUNDE2 erakundea den). Azken auzi hori ere nahikoa eztabaidagarria izan da gatazka biak azaldu ziren unetik.

13/2010 gatazkan, aurrekoekin zerikusia ez duen beste auzi bat azaleratu da, honako hau hain zuzen ere: ZAEAk aipatutako baterakuntza taldearen ikuskapen jarduerak egiaztatze eta kitapen egintzak emateko erabili zituen AZZ-ZZZZZZZZ eta AZZ-ZZZZZZZZ aktak eginda, jarduketak eteteko betebeharra urratu ez ote zuen, Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztutako gatazka zela eta.

Gainerako guztiari dagokionez, 13/2010 gatazkaren edukia eta 8/2008 gatazkarena berdin-berdinak dira, hau da, ERAKUNDE1 erakundearen Sozietateen gaineko Zergaren inguruan dihardu. Hala eta guztiz ere,



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

nabarmendu behar dugu 2010eko ekitaldiko gatazkan nagusitzen dela erakundeak lurralde bakoitzean egindako negozio bolumena zehazteko metodologia berriak dakarren auzia, nahiz eta auzi hori aurreko gatazkan ere agertzen zen. Beraz, esan behar da ez dela beste gatazka iturri bat, ezpada, Bizkaiko Foru Aldundiak eta ERAKUNDE1 erakundeak baliatutako tesiari eusteko beste arrazoibide bat, aipatutako erakundeari 2002ko ekitaldian aplikatu zioten Sozietateen gaineko Zergaren inguruan. Azken batean, zentzu hertsian hartuta, gatazka biek erdietsi nahi duten helburua berdina da eta, beraz, helburua bat bera da; agerikoa da, hortaz, gatazka biak metatzea arrazoi horregatik. Aztertu ondoren, esan dezakegu 13/2010 gatazkaren inguruko proposamenaren xederik behinena izan dela negozio bolumenari buruzko lurraldeko ikuspegia txertatzea auzien eztabaidan.

Hala, hasteko eta bat, 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergari dagokion auzia aztertuko dugu, funtsean, gatazkek mahairatzen duten auzi nagusia delako eta eztabaidagai garrantzitsuena hori delako. Geroago, jarduketak eteteari buruzko auzia aztertuko dugu.

2. Eztabaidagai nagusiari ekin baino lehen, kongruentziaren abiaburua zorrotz betetzeko helburuz, aipatu behar dugu ZAEAk 8/2008 gatazkaren inguruko alegazio idazkian mahairatutako auzi bat, 2009ko otsailaren 12an. Idazki horren lehenengo zuzenbideko oinarrian, ZAEAk adierazi zuen ERAKUNDE2 erakundeak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuela Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiaren 2008ko urriaren 23ko ebazpenaren aurka. Aipatutako erakundeak 2004ko irailaren 17ko kitapen egintzaren aurka aurkeztutako erreklamazioaren zioz eman zen ebazpena eta erakundeak Arbitraje Batzorde honen babesa eskatu zuen, irizpide honi jarraiki: errekurtso mota horiek gatazka azaleratu ondoren jartzen direnean, ez da aplikagarria Ekonomi Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 9. artikuluan ezarritakoa eta prozedura eten egin behar da Arbitraje Batzordearen aurrean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008 eta 13/2010	R7/2013	2013/04/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena

ZAEAREN alegazio horren aurrean, ERAKUNDE1 erakundeak, 2013ko martxoaren 14ko idazkian, egoki arrazoitu zuen aipatutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak ZZZ/2009 zenbakiaren bidez izapidetu eta Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak ebatzi zuen 2011ko martxoaren 23an ez ziharduela ebazteke zegoen gatazkaren eztabaidagai nagusiaren inguruan. Gainera, eztabaidagai nagusia ebazteko, Salak eskumena aitortu zion Arbitraje Batzorde honi. Arestian esan den legez, Auzitegi Goreneko Hirugarren Salak berretsi zuen epaia 2012ko azaroaren 12an, ZZZZ/2011 errekurtsoan oinarrituta.

Aurrekoez gain, esan beharra dago, zuzenbideko oinarrietan adierazi den moduan, Arbitraje Batzordeak hasarazi zuela 8/2008 gatazkaren izapidetzea, aurretiazko izapidetzea ez onartzeko erabakia gogorarazita, Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 10eko epaia ikusita. Epaia horretan, auzitegiak ezetsi zuen eztabaidagai nagusiaren inguruko eskumena *sub judice* edo epailearen mendean egotea eta honako Arbitraje Batzorde honen eskumena aitortu zuen.

3. Aztergai darabiltzagun auzietan agertutako eztabaida nagusia, lehenengoz eta bat, behean ageri diren Ekonomia Itunaren xedapenak aplikatuz ebatzi behar da, jatorriz idatzita egon diren moduan, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikagarriak diren heinean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen Azken Xedapen Bakarrari jarraiki:

14. artikulua. *Aplikatu beharreko arauak.*

Bat. Araudi autonomoaren pean egongo da zerga-egoitza Euskadin duten subjektu pasiboen kasuan.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Hala ere, aurreko ekitaldian 6 milioi eurotik gorako eragiketa-kopurua izan eta ekitaldi horretan eragiketa guztien 100eko 75 edo gehiago lurralde erkidean eginak dituzten erakundeek, lurralde erkideko arauak bete beharko dituzte.

Zerga-egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboek ere arautegi autonomoa aplikatuko zaie baldin eta aurreko ekitaldian 6 milioi eurotik gorako eragiketa-kopurua izan eta eragiketa guztiak Euskadin eginak badituzte.

Bi. Eragiketa-kopurutzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzuak direla-eta, ekitaldi batean hartzen dituen kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun errekarua kenduta, halakorik badago.

Ondasun-emate eta zerbitzutzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga araupetzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak.

Aurreko ekitaldia urtebete baino laburragoa bada, goiko Bat idatz-zatian aipatu den eragiketa-kopurua kalkulatzeko, urte osoari dagokiona kalkulatzeko da dena delako eragiketa-kopurutik abiatuta.

Hiru. Atal honetan ezarritakoaren ondoretarako, subjektu pasiboak lurralde jakin batean diharduela uste izango da lurralde horretan ondasun-emateak eta zerbitzuak egiten dituztean, 16. artikuluan adierazitako irizpideen arabera.

(...)

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

19. artikulua. *Zergaren ikuskapena.*

Bat. Subjektu pasiboak Euskadin badu zerga-egoitza, lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak egingo du Zergaren ikuskapena.

Hala ere, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eginak dituen eragiketen kopurua 6 milioi eurotik gorakoa bada eta eragiketa guztien % 75 edo gehiago araubide erkideko lurraldean egin bada, subjektu pasiboa ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioarena izango da.

Halaber, zerga-egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena lurraldearen arabera eskumena daukan foru aldundiak egingo du baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian eginak dituen eragiketen kopurua 6 milioi eurotik gorakoa izan eta eragiketa guztiak Euskadiko lurraldean eginak badira.

(...)

20. artikulua. *Interes ekonomikoko elkartzeak, enpresen aldi baterako batasunak eta zerga-taldeak.*

(...)

Bi. 1. Zerga-taldeak zerga-baterakuntzaren foru araubidearen menpe egongo dira baldin eta sozietate edo establezimendu iraunkor nagusia eta menpeko guztiak foru arautegiaren menpe badaude banako zerga-ordainketaren araubidean, eta lurralde erkideko zerga-baterakuntzaren araubidearen menpe egongo dira, aldiz, sozietate nagusia eta menpeko guztiak lurralde erkideko zerga-araubidearen menpe badaude banako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

zerga-ordainketaren araubidean. Hori dela eta, zerga-taldetik kanpokotzat joko dira beste araubidearen menpe dauden sozietateak, halakorik badago.

(...)

Aurreko lerrootan transkribatutako manuei jarraiki, zerga helbidea Euskadin daukan Sozietateen gaineko Zerga ordaindu behar duten subjektu pasibo batek, argi eta garbi ERAKUNDE1 erakundeak, 2002ko ekitaldian estatuko araudiari men egiteko eskakizunak honako hauek ziren:

- Aurreko ekitaldian gauzatutako eragiketen bolumena guztira 6 milioi eurotik gorakoa izatea, eta
- Aipatutako ekitaldi horren barruan, guztizko eragiketen bolumenaren ehuneko 75 edo gehiago lurralde erkidean gauzatzea.

Eskakizun berberak xedatzen dira ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioari esleitzeko.

Aldi berean, ERAKUNDE1 erakundea Z/ZZ zerga multzoan, erregimen arruntan, sailkatzeko hautua estatuko araudiari men egin behar izateko betebeharrak baldintzatzen zuen une horretan.

Bistakoa da ERAKUNDE1 erakundearen eragiketen bolumena guztira 6 milioi eurotik gorakoa izan zela 2001eko ekitaldian; beraz, aztergai darabiltzagun gatazketan ageri diren eztabaidagaien ebazpena bakar-bakarrik funtsatu behar da erakundeak ekitaldi horretan lurralde erkidean gauzatutako eragiketen bolumenaren ehunekoan.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

2001eko ekitaldian, eragiketen bolumena dela eta, ERAKUNDE1 erakundeak honako ehunekoak aitortu zituen:

- Lurralde erkidea	1.EHUNEKOA
- Bizkaia	2.EHUNEKOA
- Gipuzkoa	3.EHUNEKOA
- Araba	4.EHUNEKOA
- Nafarroa	<u>5.EHUNEKOA</u>
GUZTIRA	100,00

Goian aipaturiko ehunekoetan oinarrituta, eragiketen guztizko bolumenaren ehuneko 75 lurralde erkidean gauzatu dela balekotzat joko genuke Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidearen barrukoa dela ulertuko bagenu. Horixe da, hain zuzen ere, 8/2008 gatazkari lotutako eztabaidagai nagusia.

Nolanahi ere, lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketen bolumenaren ehunekoak kalkulatzeko era berriarekin bat etorriz, ondoan azalduko den moduan, 2002ko ekitaldian lurralde erkidean gauzatutako ehunekoa ez litzateke helduko guztizkoaren ehuneko 75era, nahiz eta, ondore horietarako, Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidearen barruan sartu. Horren ondorioz, ehunekoak kalkulatzeko era berria onartuko balitz, ez luke garrantzirik izango Nafarroako lurraldea lurralde erkidearen barruan sartzeak ala ez sartzeak. Beraz, azterketaren zentzuzko ordenari eraz ekingo badiogu, lehenik eta bat, arestian azaldutako zenbatzeko era Zuzenbidearekin bat ote datorren aztertu beharko da.

Eragiketen bolumenaren ehunekoa kalkulatzeko era berria, Bizkaiko Foru Aldundiak proposatutakoa

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008 eta 13/2010	R7/2013	2013/04/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena

4. Ekonomia Itunaren 14. artikulua 3. atalak dioenari jarraiki, eragiketen bolumenaren ehuneko edo zenbatekoaren kalkulua lurralde jakin batean egin behar da legezko testu horren 16. artikulua eragiketak gauzatu direneko lurraldearen gainean ezarritako arauak aplikatuz. Honi dagokionez, testuak honakoa dio:

16. artikulua. *Eragiketen lekua.*

Honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira:

A) Ondasun-emateak:

1.a. Ondasun higigarri gorpuzdunak ematea, Euskadiko lurraldetik bertatik eskuratzailaren esku jartzen direnean. Ondasunak eskuratzailaren esku jartzeko garraiatu egin behar badira, igorpena edo garraiaketa hasten denean ondasunak non dauden, ematea hantxe egin dela ulertuko da. Arau horrek honako salbuespenak izango ditu:

a) Ondasun horiek eraldatuta baldin badaude eta ondasunak eman behar dituenak berak eraldatu baditu, ondasun horiek Euskadiko lurraldean egindakotzat hartuko dira azken eraldatze-prozesua Euskadin egin bada.

(...)

2.a. Energia elektrikoa ekoizten dutenen emateak, energia hori sortzen duten zentroak euskal lurraldean baldin badaude.

(...)

B) Zerbitzuak egitea:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

1.a. Zerbitzuak euskal lurraldean egindakotzat hartuko dira, hain zuzen ere lurralde horretatik abiatuta ematen badira.

(...)

C) Aurreko A) eta B) letretan xedatutakoa kontuan hartu behar bada ere, honako eragiketa hauek Euskadin egindakotzat hartuko dira, eragiketak egiten dituen subjektu pasiboak zerga-egoitza euskal lurraldean baldin badauka:

(...)

2.a. Garraio-zerbitzuak, baita etxez aldatzeko zerbitzuak, atoi-zerbitzuak eta garabi-zerbitzuak ere.

(...)

Ehunekoak kalkulatzeko era berriaren oinarria ERAKUNDE1 erakundeak aitortutako eragiketak (goian adierazitakoak) kalkulatzeko erabili zen moduaren aldaketa batean datza. Aldaketa horren arrazoiak jabetzeko, Espainiako sistema elektrikoaz jakin behar da aztertutako urteetan; hau da, sistema horretan jarduten zuten enpresak eta enpresa horien jarduerak zein ziren jakin behar da. Bizkaiko Foru Aldundiak aipatutako sistemaren nondik norakoak deskribatzen ditu labur-labur aurkeztutako idatzietan eta askoz ere zehatzago azalduta dago, espero zitekeen bezala, ERAKUNDE1 erakundeak aurkeztutako alegazioen idatzi luzean. Agiri horretan, xehetasun handiz deskribatzen da "sektore elektrikoaren araudi esparrua". Ondoan doan azalpenak, funtsean, idatzi horretan hartzen du oinarri.



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

a. Espainiako sistema elektrikoa. Trantsizio aldia

Aztergai darabilgun aldian, sektore elektrikoa arautzen zuen funtsezko araua Sektore Elektrikoaren azaroaren 27ko 54/1997 Legea (SEL) zen. Lege hori oraindik ere indarrean dago, aldaketa ugari egin bazaizkio ere. SELeek ondoko jarduerak bereizten ditu: argindarra sortu edo ekoiztea eta elektrizitatea garraiatu, banatu eta merkaturatzea. Garraio sareek energia ekoizteko zentralak eta biztanle-guneak lotzen dituzte eta energia garraiatzen dute ekoizpen zentraletatik banaketa sareetaraino behe-tentsioan. Gero, banaketa sareek azken kontsumo-guneetaraino eramaten dute energia. Banaketaren zeregin nagusia energia elektrikoa eramatea da garraio saretik kontsumo-guneetaraino; bestela esanda, banatzailearen sareari lotuta dauden bezeroek eskatzen duten elektrizitatea haienganaino heltzeko beharrezkoak diren banaketa sareak eraiki, horien mantentze lana egin eta kudeatu behar dira. Banaketa sarea hasten da garraio sarea amaitzen den tokian. Biztanle-guneetatik hurbil dauden azpi-estazio elektrikoetan, goi-tentsioko energia (220 Kw) behe-tentsioko energia bihurtzen dute eta, horren ondotik, energia banaketa saretik barrena garraiatzen da azken kontsumitzaileenganaino. SELeek energia elektrikoaren merkaturatzaileak jaso zituen legean, sektorean lehia ezartzeko helburuz, Energia elektrikoa merkatu librean eskuratzeko eskubidea aitortuta, horretarako baimena duten subjektuen artean hautatuta, eta aldi berean, eskuratutako energia garraiatzeko xedez, sare elektrikoak baliatu eta erabiltzeagatiko saria ordaindu behar da. Merkaturatzailearen jarduera bereizgarria energia erostea da handizkako merkatuan eta erositakoa saltzea txikizkako merkatuan, aldezturik hitzartutako prezio jakinean.

Trantsizioko aldi baten barruan, hain zuzen ere, 2000. eta 2009. urteen arteko aldian, energia elektrikoaren azken kontsumitzaileentzako salmenta ere (tarifaren araberako salmenta) banaketaren barruko jardura zen. Europako 2003/54/CE Zuzentarauaren transposizioa Espainiako zuzenbidera uztailaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

4ko 17/2007 legearen bidez egin zen. Lege horrek, jakina denez, SEL aldarazi zuen. 2007ko legeak xedatutakoari jarraiki, tarifaren araberako energia horniduraren jarduera banatzaile elektrikoaren jardueretatik kendu zen, "azken baliabideko tarifak" ezarri ondoren, enpresa merkaturatzaileek era eskusiboan eman beharreko zerbitzu unibertsal gisa ulertuta.

Trantsizioaldiaren barruan, enpresa banatzaileek bi bezero mota zituzten:

- Sarbideko tarifaren araberako bezeroak edo bezero kalifikatuak. Bezero mota horiek enpresa merkaturatzaile bati erosten diote energiaren hornidura eta merkaturatzaileak energia erosten du elektrizitatearen merkatuan. Bezero kalifikatuak merkatuan ere eros dezakete energia, modu zuzenean. Kasu horretan, enpresa banatzaileek garraio eta banaketa zerbitzua eskaintzen diote bezeroei, enpresen sarearen bitartez, kontsumoguneraino.
- Tarifa integralaren araberako bezeroak. Enpresa banatzaileek energia garraiatzen dute bezero mota horientzat enpresen banaketa sareak erabiliz (hau da, sarbideko tarifaren araberako bezeroei eskaintzen dieten zerbitzu bera) eta, gainera, zuzenean saltzen diete energia. Tarifa integralaren araberako bezeroek enpresa banatzaileei ordaintzen zizkieten Errege Dekretu bidez urtero-urtero ezarritako tarifak. Ordaindu beharreko tarifak sektore elektrikoaren guztizko kostuak zenbatetsita ezartzen ziren, hau da, tarifen zenbatekoaren bitartez, sektorearen kostu guztiei aurre egin behar zitzaienten eta horniduran parte hartzen zuten eragile guztiei ordaindu.

Banatzaileek tarifa integralaren araberako bezeroei hartutako sarrerak, hasteko eta bat, elektrizitatearen ekoizleari ordaintzeko erabiltzen ziren, energiaren merkatuan ezarritako prezioen arabera. Diru bilketaren gainerakoa Energiaren Batzorde Nazionalari (EBN) ematen zitzaion eta horrek, erakunde likidatzailea zen aldetik, sistemako eragile eta operadore guztiei ordaintzen zien, funtsean,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

garraiolari eta banatzaileei. Ildo horretan, energia elektrikoaren salmenta ordaintzeko sari zehatzik ez zegoen. Sistema horrek energia erosteko kostua konpentsatzen zien enpresa banatzaileei, enpresa horiek egindako erosketaren kostuari ahalik eta gehien hurbiltzen zen formula baten bitartez. Hori dela eta, ERAKUNDE1 erakundeak adierazi duenez, energiaren salmentak ez zekarkion inolako balio erantsirik enpresari. Bada, tarifa integralaren arabera bezeroei kobratutako fakturazioaren zenbatekoa energia elektrikoaren kostua ordaintzeko, banaketa eta merkataritza kudeaketa ordaintzeko eta sisteman parte hartzen zuten gainerako eragileei ordaintzeko erabiltzen zen; beraz, enpresa banatzaileak sektore elektrikoaren diru biltzaile hutsak ziren.

ERAKUNDE1 erakundea 2000. urtean sortu zen, SELez ezarritako eskakizuna betetzeko, hots, energia elektrikoa garraiatu eta banatzeko jarduerak enpresa bakarrak egin zituzan. Gainera, SELez bateraezintzat jo zituen jarduera horiek energia ekoizti eta merkaturatzeko jarduerekin. ERAKUNDE1 erakundeak energia elektriko garraiatu eta banatzeko jarduerak gauzatu ohi ditu ERAKUNDE2 taldearen barruan 2000ko uztailaren 1etik aurrera. ERAKUNDE2 erakundeak, berriz, energia merkaturatzeko eta modu askean saltzeko jardueri ekin zien, eta ERAKUNDE3 erakundeak energia ekoizten zuen. Trantsizioaldiaren barruan, 2009ko uztailaren 1era arte, ERAKUNDE1 erakundeak, legezko aginduz, elektrizitatea hornitzeko jarduera gauzatu zuen tarifa integralaren arabera bezeroentzat

**b. Eragiketak gauzatu direnoko lekua, lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketen bolumenaren zenbatekoa kalkulatzeko**

ERAKUNDE1 erakundeak 2001eko ekitaldian aitortutakoari jarraiki, lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketen bolumenaren zenbatekoak kalkulatu ziren Ekonomia Itunaren 16. artikuluko xedatutako aintzat hartuta, eragiketan horiei buruzko kalifikazioetatik abiatuta, behean azalduta dagoen moduan:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

- Banaketa sarera sartzeko zerbitzuak emateko jarduerak energia elektrikoa merkatu liberalizatuko bezeroentzat (sarbideko tarifaren arabera bezeroentzat) Bizkaiko Lurralde Historikoan bakarrik gauzatu ziren (lurralde horretan dauka zerga egoitza ERAKUNDE1 erakundeak), garraio zerbitzuei aplikagarria zaien berariazko arauaren arabera (C atala), 2.a).

- Energia elektrikoa hornitzeagatik sarrerak (tarifa integralaren arabera bezeroentzat) azken eraldaketa egiten den lurraldearen arabera izan ziren [A atala), 1.a, a)]. Energia elektrikoaren azken eraldaketa hornidura gunea dagoen lekuan egiten da, leku horretan bertan bihurtzen baita energia bezeroak behar duen tentsiora.

- Kontagailuak alokatzeagatik sarrerak lurralde bakoitzean zenbatu ziren, ekipoa non dauden instalatuta kontuan hartuta (B atala), 1.a).

- Erakundearen gainerako sarrerak (matxuren konponketa edo instalazioen aldaketa, hirugarrenentzako mantentze zerbitzuak, Red Eléctrica de España taldearentzat egindako lanak, hondakinen salmenta eta abar) lurraldeetan zenbatu ziren, lurralde bakoitzean egon den batez besteko plantilaren arabera, zerbitzua ematen deneko arauari jarraiki.

Hala eta guztiz ere, Estatuko Ogasunaren Ikuskatzailtzak ERAKUNDE1 erakundearen inguruan, 2001 eta 2002ko ekitaldiei dagokienez, emandako 2008ko martxoaren 7ko baterakuntza izapideetan, (AZZ-ZZZZZZZZ eta AZZ-ZZZZZZZZ zenbakiak, hurrenez hurren), eta 2008ko uztailaren 23an Bizkaiko Foru Ogasunari helarazitako idatzi batean –idatzi hori Bizkaiko Foru Ogasunaren Ikuskatzailtzaren 2010eko martxoaren 8ko txostenean aipatu zen, baina ez zen espedientean txertatu– ERAKUNDE1 erakundeak adierazi

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

zuen erakundearen aitortpenetan jasotako eragiketen bolumenaren ehunekoa zehazteko modua ez zela zuzena eta berria proposatu zuen. Bizkaiko Foru Aldundiak bat egin zuen proposamenarekin.

Zenbatekoak kalkulatzeko moduaren ez-zuzentasuna honakoan zetzan: "ez zen aintzat hartu tarifa integralaren barruan, hau da, elektrizitatearen horniduraren zerbitzu osoaren kontraprestazioan (energiaren salmenta eta garraio/banaketa zerbitzua kontsumoguneraino), zati batek sarearen barruko garraioa kontsumoguneraino ematen den zerbitzua ordaintzen duela eta, hortaz, eragiketen bolumena kalkulatzeko xedez, gorputz ondasunen emateari buruzko arautik bereizi eta garraio zerbitzuak emateari buruzko arauan txertatu beharko zen". Horren ondorioz, ERAKUNDE1 erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ondokoa proposatu zuten: "tarifa integralaren araberako sarrerak aipatutako zatietan banatzea: energiaren salmentaren zizoko sarrerak eta banaketa zerbitzuaren zizoko sarrerak. Hala, lehenengo zatia eskuratzailerak edo kontsumogunea dagoeneko lekuari esleitu beharko litzaioke (oro har, bat etorriko da energia elektrikoa Red Eléctrica de España taldearen goi-tentsioko saretik atera eta ibilbidea konpainiaren banaketa sareetatik hasten den lurraldearekin bat etorriko da) eta bigarren zatia energia elektrikoaren banaketa egiten duen erakundeak zerga egoitza daukan lurraldeari esleituko litzaioke". Bestalde, ERAKUNDE1 erakundearen gainerako eragiketak lehengo lekuan kokatzen dira.

ERAKUNDE1 erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak onartzen dutenez, "irizpide hori erabiltzeko zailtasun bakarra da bi eragiketa horiengatik sarreren bereizketa biribila egitea, tarifa integralak ez baititu bereizten energia emateko prezioa eta energia garraiatzeko banaketa sarea erabiltzeagatik prezioa". Eta zailtasuna gainditzeko, proposatzen duten bidearen oinarria dugu sare unitariora sartzeko batez besteko tarifa (banaketa zerbitzua bakarrik ordaintzen duena) eta batez besteko tarifa integral unitarioa alderatzea (bigarrenak,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008 eta 13/2010	R7/2013	2013/04/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena

ERAKUNDE1 erakundearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz, banaketa zerbitzua eta energiaren salmenta ordaintzen ditu). Horrela eginez gero, bi erakunde horien iritziz, aipatutako zerbitzua ordaintzen duen azken tarifaren zati proportzionala aterako litzateke. Tarifa unitarioen zenbatekoa kalkulatzeko, tarifa bakoitzarengatik urteko zenbatekoak zati bezeroen artean banatutako energia (kWh) egin behar da.

ERAKUNDE1 erakundeak emandako datuak erabiliz, honakoa ateratzen da 2001eko ekitaldiari dagokionez:

- Sarera sartzeko batez besteko tarifa unitarioa: 0,012745 € / kWh

- Batez besteko tarifa integral unitarioa: 0,075541 € / kWh

Ehunekotan emanda, aurreko bi zenbatekoen arteko zatidura % 16,87koa da, hau da, kopuru hori tarifa integralaren araberako sarreren ehunekoa izango litzateke eta bezeroei eskainitako banaketa zerbitzua ordaintzeko erabiliko litzateke. Kalkuluak egiteko modu hori erabiliz, 2001eko ekitaldiko eragiketen bolumenaren zenbatekoak ondokoak izango lirateke:

- Lurralde erkidea	6. EHUNEKOA
- Bizkaia	7. EHUNEKOA
- Gipuzkoa	8. EHUNEKOA
- Araba	9. EHUNEKOA
- Nafarroa	<u>10. EHUNEKOA</u>
GUZTIRA	100,00

ERAKUNDE1 erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ohartarazi zuten, kalkulatzeko modu hori erabilia, banaketa elektrikoaren jardueraren ziozko eragiketen bolumena (sarbideko tarifa gehi tarifa integralaren % 16,87), 1.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

ZENBATEKOA mila eurokoa, eta ekitaldi horretan ERAKUNDE1 erakundeak aitortutako urteko ordainketa ofiziala (2. ZENBATEKOA mila euro), oso antzekoak zirela. Hala, emaitzak, erakunde bien iritziz, agerian uzten du kalkulua egiteko erabili den batez bestekoa balekoa dela. Alegazioen idatzian (82. orrialdean) ERAKUNDE1 erakundeak adierazi zuen aurreko kalkulua, arestian aipatutako baterakuntza eginbideetan jasota dagoena, "aukera zuzena dela, baina beste aukera zuzen batzuk ere egon zitezkeela, betiere banaketa jardueren, zentzu hertsian hartuta, eta energia elektrikoaren tarifaren araberako salmenta jardueren bereizketatik abiatzen badira". Beste alde batetik, ERAKUNDE1 erakundeak idatzi horretan (64. orrialdean) adierazi zuen erakundeak berak proposatutako ehunekoek eta Bizkaiko Foru Aldundiak onartutakoek ez dutela eragiketen bolumena aldarazten, baina tarifa integralaren araberako sarrerak banatzeko aldaketa bai iradokitzen dutela. Ohar horretan funtsaturik, bistakoa izan arren, argiro esan behar da gatazka honetan ez dela zalantzan jartzen eragiketen bolumena zehazten duten Ekonomia Itunaren arauen aplikazioa, bereziki, 14.Bi artikulua.

5. ERAKUNDE1 erakundearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren tesiaren aldeko eta aurkako argudioak, eragiketen bolumenaren ehunekoak kalkulatzeko modua dela eta

Gatazkan parte hartzen duten alderdien jarrerak auzi nagusi baten inguruan funtsatzen dira: banaketa zerbitzua bereiz ote daitekeen tarifa integralaren araberako bezeroentzako energia elektrikoaren salmentatik.

a) ZAEAK dauzkan arrazoiak ERAKUNDE1 erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak proposatutako moduaren aurka hainbat lekutan azaldu dira. Bizkaiko Foru Ogasuneko Ikuskatzailetzaren 2010eko martxoaren 8ko txostenak, hots, 13/2010 gatazka aurkeztu zuen agiri nagusiak, ustez, hitzez hitz aipatu zituen bosgarren zuzenbideko oinarrian eta arrazoiaren jatorria aipatzen ez duen arren,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

badirudi hartu zirela ZAEAK 2010eko urtarrilaren 13an egindako inhibizio errekerimendu batetik, agiri honetan aztergai darabilzagun ekitaldien ondokoak azalduta. Agiri horri erantzun zion Bizkaiko Foru Aldundiak Ikuskatzailtza Zerbitzuaren 2010eko otsailaren 8ko txostenaren bidez eta txostena espediente honetan jaso da ERAKUNDE1 erakundearen alegazio idatziaren eranskin gisa. Horren aurretik, ZAEAK bere jarrera arrazoitu zuen 2008ko irailaren 29ko likidazio erabakian, AZZ-ZZZZZZZZ aktaren ondorioz egindakoan.

Aipatutako dokumentuetatik lehenengoan, ZAEAK baliatutako argudioak honela laburbildu daitezke: lineak elektrikoak osagarriak dira hornidura kontratuaren xedea emateko. Izan ere, fakturretan ez da agertzen lineen alokairuaren zioz edo energia hornidura guneraino garraiatzearen zioz ordaindu beharreko zenbatekoa. Horregatik, ez da kontratu mistoa, elektrizitatea hornitzea eta elektrizitatea garraiatzeko lineak alokatzea kontuan hartzen dituen, ezpada, garraiatu behar diren gorputz ondasunak ematea xede duen eragiketa bakarra.

Aipatutako likidazio erabakian, ZAEAREN argudioak zehatzago azaltzen dira, egintza horren izaerari dagokion eran. Laburbilduz, Agentziak honakoa argudiatzen du: hornidura kontratuen xedea elektrizitatea bezeroen eskura jartzea da, haien beharrezan arabera, ez elektrizitatea garraiatzea. ERAKUNDE1 erakundearen tesia dela eta, pentsa genezake hornidura kontratuen bidez bi jarduera hitzartzen direla: alde batetik, elektrizitatea ematea eta, bestetik, elektrizitatea garraiatzeko linea jakin batzuek erabiltzeko eskubidea baliatzea. Hori horrela balitz, bezeroak erabiliko lituzkeen lineak identifikatu beharko lirateke eta prezioa zehaztu bezeroaren etxebizitzatik edo industriatik eraldaketa zentzura dagoen distantziaren arabera. Beraz, esan behar da linea elektrikoak elementu osagarriak direla hornidura kontratuaren xedea den ematea burutzeko. Hala, fakturretan, ordaindu beharreko zenbatekoa egindako kontsumoaren arabera finkatzen da, ez lineak alokatzeko zerbitzuaren arabera. SEL garatzeko arau esparruan, elektrizitatea banatzeko jarduerari



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

banaketa lineen ziozko ordainketa aitortzen zaio, eta aitorten horrek isla dauka Gobernuak onartzen duen tarifan. Tarifa ezartze aldera, Gobernuak enpresen kostuak aintzat hartzen ditu, besteak beste, linea elektrikoaren kostuak.

Gainera, ZAEAk adierazi zuen ERAKUNDE1 erakundeak tarifa integralaren barruan kalkulatu duen sarrera, garraioari dagokion zenbateko gisa, ondasunak ematearen balio handiagoa da eta, beraz, ezin da aipatutako tarifatik bereizi, alde batetik, maiatzaren 13ko 12/1981 Legeak onartu zuen Ekonomia Itunaren 20. artikulua (eragiketen gauzatzen direneko lekua arautzen duena) indargabetuko lukeelako eta, bestetik, ondasunak ematea eta, ondasun emateetan egiten diren kontraprestazioen kalkulua arautzen duten beste zerga arau batzuk indargabetuko lituzkeelako. Hain zuzen ere, Balio Erantsiaren Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 68. artikulua, eragiketak egiten direneko lekua arautzen duena, eta lege horren 78.Bi, 1.a, kontraprestazioaren kontzeptua arautzen duena ondasunak emateetan eta zerbitzuak emateetan. Azken artikulua horri jarraiki, kontraprestaziotzat hartzen dira "komisio, garraio eta abarren gastuak... bai eta ematea edo zerbitzua gauzatzen duenaren aldeko zeinahi kreditu, emateetik zuzenean edo modu osagarrian eratortzen bada". Hau da, BEZ zergaren esparruan, ondasunak emateari buruzko kontzeptuak, ematea bera eragiketaren xede nagusia denean, ematea eskueran jartzeko lekuraino egin den garraioaren zenbatekoa barne hartzen du. Kalkulatzeko modu berri onartzekotan, lurralde bakoitzean banatu beharreko eragiketen bolumena tarifa integralaren zenbatekoaren arabera, desberdina izango litzateke Balio Erantsiaren Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan. 2000 eta 2001eko ekitaldietako BEZ zergari dagokionez, 2005eko apirilaren 15eko ZZZZZZZZ zenbakidun adostasun aktan jaso den moduan, eragiketen bolumena banatzeko ehunekoak, zerga horren ondoretarako, ERAKUNDE2 erakundeak ekitaldi horretako Sozietateen gaineko Zergaren ondoretarako aitortu zituen berdin berdinak izan ziren.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

ZAEAk egindako interpretazioa –arrazoibideak jarraitzen duenez– bat dator Bizkaiko Foru Aldundiak ERAKUNDE1 erakundearen galdera bati 2003ko maiatzaren 26an erantzuteko erabili zuenarekin. Erantzun horren arabera, "galdetzen duen erakundeak tarifa administratiboaren arabera bezeroei egiten dien elektrizitate emateak, erakundeak berak ekoizten ez duen energia denez, azken eraldaketa gauzatzen den lurraldean gauzatu direla ulertu behar da" eta "banaketa sareetarako sarbide zerbitzuak garraio zerbitzutzat jo behar dira, eta beraz, galdera egiten duen erakundeak zerga egoitza daukan lurraldean gauzatzen direla ulertu behar da, kasu honetan, Bizkaiko Lurralde historikoan". Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak galdera baliogabetzat ebatzi zuen arren, ezarritako prozedura urratu zuelako, Bizkaiko Foru Aldundiak aldebakarreko egintzaz erantzun zuenez eta maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Ekonomia Itunaren gainekoa denez, oso esanguratsua da, ZAEAREN iritziz, Bizkaiko Foru Aldundiaren iritzia jakiteko. Gainera, ERAKUNDE1 erakundeak BFAREN irizpideak erabili zituen Sozietateen gaineko Zergaren aitortpena egin zuenean. ERAKUNDE1 erakundeak, aldiz, adierazi zuen arestian aipatutako galderak energia elektrikoaren emateak non gauzatzen diren eta banaketa sareetarako sarbide zerbitzuak non kokatu behar diren berresten duela, besterik gabe, baina ez zuen tarifa integralaren zenbatekoa energia emateen kontraprestazioen zenbatekoarekin lotu. Orduan, ZAEAk erantzun zuen ondasunen emateen kontraprestazioak, kasu honetan, energia elektrikoaren emateak, harmonizatuta dagoela, Espainiako Estatuan ez ezik, Europar Batasun osoan ere, eta zenbateko horren barrukoa dela azken kontsumitzailearen eskuera jartzeko garraioari legokiokeen prezioaren zatia.

b) Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak, Ikuskatzailatza Zerbitzuaren 2010eko martxoaren 8ko txostenean, jarraibidetzat hartzen ditu ZAEAREN arrazoibideak eta, lehen esan dugun moduan, agirian jasotzen ditu, eta ondoko argudioak erabili zituen horien aurka:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

- Energia elektrikoaren salmentaren aldean, banaketa zerbitzuaren izaera osagarria baztertu zuen; aitzitik, benetako garraio zerbitzua dela adierazi zuen. Zerbitzuaren funtsezko izaera ondoko gertaeretan oinarritzen da:

- ERAKUNDE1 erakundeak sarbideko tarifaren arabeko bezeroei eskaini dien garraio zerbitzua eta tarifa integralaren arabeko bezeroei eskaini diena berdina izan da 2009ko ekainaren 30era arte. Bezero bien arteko desberdintasun bakarra izan zen tarifa integralaren arabeko bezeroei, gainera, energia saltzen ziela.
- Inguruabar batzuetan, ERAKUNDE1 erakundeak ez die energiari saltzen tarifa integralaren arabeko bezeroei: bezeroak kontsumorik egiten ez duen aldietan, eta beraz, elektrizitaterik ematen ez den aldietan, banaketa konpainiak instalatutako potentziaren zioz kobratzen die, garraio zerbitzua edo sarerako sarbidea eskaintzen dielako, funtsezko zerbitzu gisa. Hala, kontsumitzailea banaketa elektrikoaren zerbitzua ordaintzeko prest dago energiaren inolako kontsumorik egiten ez duenean ere (bigarren etxebizitzak, ordezkoko sarbideak kontratatzen dituzten industriak edo ospitaleak, sarbide nagusian gerta litezkeen matxurei aurre egiteko...). Azaldutakoa funtsezko desberdintasuna da ondasunen emateen garraio osagarriekin alderatuta, bigarrenetan, eskuratzailleak ez dielako aitortzen berezko baliorik garraio jarduerari eta, gainera, ez dagoelako jarduera horren zioz ordaintzeko prest produkturik eskuratu ezean.
- Trantsizio aldia amaitutakoan, enpresa banatzaileek jarraitu zuten banaketa zerbitzu berdina eskaintzen bezero guztiei, inori energiari eman gabe.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Horren guztiaren ondorioz, ERAKUNDE1 erakundeak funtsezko jardueratzat hartzen du energiaren banaketa, eta trantsizio aldiaren barruan, tarifa integralaren araberako bezeroei emandako energiaren jarduera osagarria eta ez-funtsezkoa izan zen, enpresari ez baitzion etekin esanguratsurik ekarri.

- Garraio zerbitzua funtsezkoa balitz, bezero bakoitzak erabiltzen dituen lineak identifikatu eta prezioa distantziaren arabera zehaztu beharko litzatekeelako ustea dauka ZAEAK. Argudio horren aurka, Bizkaiko Foru Aldundiak arrazoitu zuen elektrizitatearen garraioa banaketa lineetatik barrena garraio berezia dela, energia garraiatzeko lineak ez direla identifikatzen eta prezioa ez dela zehazten distantziaren arabera. Ildo horretan, energiaren garraioa eta sare jakin bateko autobusen bitartez bidaia kopuru mugatua egiteko aukera ematen duen garraio txartela erkatzen ditu. Beste alde batetik, ZAEAK ez du ukatzen sarbideko tarifa garraio zerbitzuaren ordainketa denik, nahiz eta bi eskakizun horiek ez diren batera gertatzen.

- Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi zuenez, Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Finantza Koordinazio Zuzendaritza Nagusiak, gasa merkaturatzen duen enpresa batek ZAEAREN Zergadun Handien Ordezkaritza Nagusiaren aurrean egindako galdera bati erantzuteko helburuz, 2010eko urtarrilaren 28ko erantzun proposamenean, azaldu zuen enpresaren eragiketak gauzatzen direla azken kontsumitzailearentzako gas ematetzat jotzen den eragiketan balio erantsia sorrarazten duenean. Hala, gasaren merkaturatzaileak gas garraiatzeko instalaziorik eta kontsumitzaileei emateko azpiegiturarik ez daukanez, gasa banatzaileen sareetatik kontsumitzaileen instalazioetaraino garraiatzen delako, enpresak beharrezko bitartekoak dauzkan lekuan garatzen du jarduera, hau da, gasa salerosteko kontratuak egiten dituen bulego, establezimendu edo egoitzan bertan.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Horrez gain, galderan jasota dago Ekonomia Itunak etekinaren edo balio erantsiaren sorlekua kontuan hartzen duela beti mozkinak banatzeko, eta balizko desdoitzeak edo desorekak zuzentzen dituela kontsumoaren doiketa deritzonaren bitartez. Doktrina hori kasu honetara ekarrita, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi zuen ERAKUNDE1 erakundearen funtsezko mozkinak, trantsizio aldiaren barruan, banaketa jardueraren zioz sortu zela, hots, energia kontsumitzaileenganaino egoera hobezinetan heltzeko zerbitzua ematearen zioz; bestalde, energiaren salerosketaren zioz, erakundeak ez zuen inolako etekinik atera.

c) 2011ko azaroaren 29ko alegazioen idatzian, ZAEAk bere jarrerari eutsi zion:

"Ez dira bi merkataritza jarduera desberdin, BFAk dioen moduan, ezpada, jarduera bakarra, energia elektrikoaren hornidura, alegia. Hori argi eta garbi geratzen da horniduraren fakturazioan, ez baita inon banakaturik agertzen energiaren garraioari dagokion zenbatekoa, tarifan ez delako bereizten energiaren prezioa eta energia garraiatzeko erabiltzen den sarea erabiltzeagatiko prezioa.

Bezeroek ez dute garraio sareen erabilera kontratatzen, bezeroen helburu bakarra energia elektrikoa jasotzea delako eta ERAKUNDE1 erakundeak eskaintzen die energiaren hornidura prezio jakin batean. Prezio horretan, ematea burutzeko beharrezkoak diren kostu guztiak kontuan hartzen dira, bai eta enpresaren mozkinari dagokiona, eta energia banatzeko sareak erabiltzearen ziozko kostua ere, jakina denez, aintzat hartuta dago".

Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazioetan, esaten da badirela aldiak bezeroek energiarik kontsumitzen ez dutenak eta horretan oinarrituta "garraioa badela, egiatan, konpainiak bezeroari bidalitako fakturaren zenbatekoa zehazten duena, nahiz eta kontsumitzaileak kontsumoguneraino garraiatu den energia

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

erabili ez badu ere". Argudio horren aurka, ZAEAk ondoko arrazoibideak eman zituen:

- Energia kontratatuta daukan lekuan, kontsumitzaile bakoitzak baliatzen duen erabilera gorabehera, egia da, energia kontratatu ondoren, bezeroak beti eduki behar duela eta energia erabiltzeko modua izan behar duela. Kontsumitzaileak bere gain hartzen duen kontraprestazio ekonomikoaren ardatzak ditugu, alde batetik, energiaren erabilera eta kontsumitutako bolumena, eta bestetik, erabilgarritasun iraunkorraren ordainketa. Arrazoi horregatik, inguruabar jakin batzuetan (istripuak, gainkargak, tentsio jauskerak...) kontsumitzaileek erreklamazioa jartzen diote konpainiari hornidura faltagatik eta, kontrakontu gisa, konpainiek kalte-ordaina ordaindu behar diote kontsumitzaileei hornidura faltagatik.

- Energia kontsumitzen ez den inguruabar guztietan (ez kontsumitzeko arrazoa zeinahi dela), kontsumitzaileak kontzeptu batzuen arabera ordaintzen du, eta kontzeptu horiek arautu eta zehazten dira unean-unean indarrean dagoen araudian, baina ez dute inolako loturarik energiaren benetako garraioarekin; bai, ordea, banaketa enpresak halabeharrez egin behar duen mantentze lanarekin, energia erabilgarri egon dadin.

- Ildo horretan, gas, ur eta elektrizitate konpainia banatzaileek berdin jokatzten dute aipatutako inguruabarretan, kontsumorik ez dagoenetan: la kontsumitzaileak ordaintzen duen kontraprestazioa dena delako ondasunaren eskuragarritasunaren ziozkoa da.

- ZAEAk berriro adierazi zuen energiaren garraioak Bizkaiko Foru Aldundiak aitortzen dion funtsezkotasuna izango balu, energiak egindako distantzia kontuan hartu beharko litzatekeela; gainera, ZAEAk ezetsi zuen energia elektrikoaren garraioaren izaera "berezia", Aldundiak esan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

moduan. Agentziaren iritziz, Bizkaiko Foru Aldundia kontraesanean erortzen da garraio txartelaren adibidea erabiltzean.

- Energiaren garraioaren funtsezkotasunak ez dio erantzuten arloa arautzen duten manuen xedeari, ez eta testuari ere, Sozietateen gaineko Zergari dagokionez. Izan ere, manu horietan, "ondasunen erabilera eta benetako kontsumoa" aldeztzen da, eta arau hori bat dator Ekonomia Itunak xedatzen duen "eskueran jartzearekin".

ZAEAk ukatu zuen kontraesanik dagoenik kasu honetan duen jarrerarekin eta Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Finantza Koordinazio Zuzendaritza Nagusiak gasa merkaturatzen duen enpresa batek egindako galderari eman zion erantzunarekin. Bara, ZAEAREN ustez, galderan jorratutako auziak –gas banaketaren ziozko balio erantsiaren sortzapena non gertatzen den zehaztea– ez baitauka zerikusirik honako auzi honetan mahairatutakoarekin.

Amaitzeko, ZAEAk gogorarazi zuen SELEN lehen bi ataletan xedatzen dena. Bi atal horietako testua, aztergai darabilgun kasuari aplikagarri denaz bezainbatean, ondokoa da:

1. Honako lege honek energia elektrikoari hornidurari lotutako jarduerak arautzen ditu. Aipatutako jarduerak hauek dira: ekoizpena, garraioa, banaketa, merkaturatzea eta erkidegoen arteko nahiz nazioarteko trukeak, bai eta sistema elektrikoaren kudeaketa ekonomikoa eta teknikoa.

2. Aipatutako jardueren arauketak ondoko xedea dauka:

a) Energia elektrikoaren hornidura kontsumitzaileen beharrianen arabera egokitzea eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

b) Energia beharrianon arrazionalizazioa, eraginkortasuna eta optimizazioa.

ZAEAREN iritziz, manu horretatik ondorioztatzen da energia elektrikoaren salmentaren aurretik gauzatzen diren jarduera guztiek helburu dutela energiaren hornidura egokia egitea, eta beraz, jarduera nagusiaren osagarriak izan behar dutela. Jarduera nagusia, bada, energia elektrikoaren salmenta da.

Azkenik, ZAEAK ondorioztatu zuen ERAKUNDE1 erakundeak kontsumitzaileei ematen dien energia gorputz ondasuna dela eta ondasun hori garraiatu egiten dela; hortaz, kontuan hartu beharreko lotura puntuak hauxe izan behar du: eskuratzaileren eskueran jartzeko helburuz, garraioa hasi baino lehen energia zegoen lekua. Horniduran erabiltzen den energia, banaketa hasi orduko, goi-tentsiotik behe-tentsiora bihurtzen duen transformadorean dagoenez, Ekonomia Ituna aplikatzen bada, energia emateko jarduera gauzatzen den lekua transformadorea dagoena da, horixe baita banaketa konpainiak, ERAKUNDE1 erakundeak, energia erosi eta, bezeroenganaino eramateko helburuz, garraioa hasten den lekua.

d) 2012ko maiatzaren 23ko alegazio idatzian, Bizkaiko Foru Aldundiak behin eta berriro aipatu zuen energia elektrikoaren banaketa eta salmenta bereizi behar direla, eta lehenengoak ez daukala izaera osagarriarik bigarrenaren aldean. Aldundiak gaineratu zuen, osagarritasunaren auzian ZAEAK arrazoia edukita ere, sektorean arautzen diren jarduera guztiek (ekoizpena, garraioa, banaketa, merkaturatzea eta salmenta), zerga obligaziodunek garatzen dituztenean, jarduera nagusiaren osagarri direlako, energiaren emateei aplikagarri zaien lotura puntua kontuan hartu beharko dutenik Ekonomia Itunean xedatzen diren ondoretarako, jarduerok zerbitzuen ematea gauzatzen dutenean; "auzi horri dagokionez, ZAEAK koherentea izan nahi badu, irizpide



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

berbera erabili beharko luke bi bezero motekin, hau da, sarbideko tarifaren arabera bezeroekin eta tarifa integralaren arabera bezeroekin" (26. orrialdea).

Aurrerago (23. alegazioa), lehen azaldu dugun tesia gorabehera, Aldundiak ohartarazi zuen ZAEAk lotura puntu desberdinak ezartzen dituela bezeroak subjektu desberdinak direnean. Horren inguruan, Aldundiak adierazi zuen (32. orrialdea) "ez duela aurkitu legezko babesik baieztapen horri eusteko" eta horrez gain, azaldu zuen "ondore horietarako, kontuan hartu behar dela sektore elektrikoan, beste sektore ekonomiko batzuetan bezala, lotura puntu desberdinak erabili ohi direla hainbat jarduera gauzatzeagatik, ez bakarrik aztergai darabilgun auzian, hau da, tarifa integralaren arabera bezeroentzako banatzaileak, ezpada, banatzaile gisa jarduten duten elektrizitate ekoizleentzat... ZAEAREN uzia, merkaturatzeak banaketa subsumitzen dueneko jarduera biak subjektu berberak gauzatzen dituenean, sektore elektrikoa arautzen duen araudiarekin bat ez datorren sinplifikazioa da, hain zuzen ere, sektore elektrikoaren araudiak sinplifikazio horren aurka jotzen duelako". Idatziaren amaieran, foru erakundeak honakoa esan zuen: "Bizkaiko Foru Aldundiak ez du ulertzen zer arrazoi edo zer legezko euskarri balia dezakeen ZAEAk lotura puntu desberdinak erabili daitezkeela bakar-bakarrik subjektu desberdinak direnean; izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz, Ekonomia Itunean ezarritako lotura puntuak gauzatutako jardueren arabera aplikatu behar baitira, jarduerok subjektu bakar batek edo batzuek gauzatzen dituzten aintzat hartu gabe" (33. orrialdea).

ZAEAk argudiatu zuen egindako distantzia ez dela kontuan hartzen fakturazioan, eta Bizkaiko Foru Aldundiak erantzun zion ERAKUNDE1 erakundeak ezin duela nahi moduan fakturatu, fakturatzeko era sektore elektrikoa arautzen duen araudiak ezartzen baitu. Aldundiaren ustez, ZAEAk

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

nahastea dauka argudiatzen duenean erakundeak ezartzen duen prezioari esker kostuei eutsi eta erakundeak lortu nahi duen mozkina ateratzen duela.

Geroago (24. alegazioan) Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi zuenez, eragiketen bolumenaren zenbatekoa zehazteko helburuz, Ekonomia Itunak xedatzen du kontraprestazioen guztizkoa aintzat hartu behar dela, BEZ zerga kanpoan utzita, eta baliokidetasun erreargua Sozietateen gaineko Zerga kalkulatzeko. Horren ondorioz, "kontraprestazioen zenbateko hori kalkulatzeko eta, zehatzago esanda, lurralde bakoitzean gauzatutako kontraprestazioen zenbatekoa kalkulatzeko, zerga obligaziodunak aintzat hartu behar dituela berak bildutako sarrera guztiak; ez, ordea, zerga obligaziodunak gauzatzen duen jarduerari dagozkion sarrerak... Beraz, Ekonomia Ituna arautzen duen araudia dela eta, lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketen bolumenaren zenbatekoa kalkulatzeko xedez, kontraprestazioen kontzeptua erabiltzen duenez gero, erakundeak gauzatutako jarduera ekonomikoari doazkion sarrerak baino zenbateko askoz handiagoak aintzat hartu behar baitira".

Aurrerago (25. alegazioa), Bizkaiko Foru Aldundiak argudiatu zuen energiaren salerosketa ez diola ez etekinik, ez galerarik, ekartzen ERAKUNDE1 erakundeari, eta ildo horretan, aipatu zuen "Auzitegi Gorenak hainbatetan erabilitako irizpidea. Irizpide horren arabera, eragiketa jakin batzuk zein lurralderi egotzi behar zaizkion zehazteko helburuz, 'balio erantsiaren' abiaburua baliatzen du, hau da, negozio edo eragiketa batean, balio erantsia zein lurraldetan sortzen den". Aldundiak ZAEAREN jarreraren aurka jo zuen, bigarrenak ez zuelako aztergai darabilgun auzian kontuan hartu Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Koordinazio Zuzendaritza Nagusiak egindako galdera, 2010eko urtarrilaren 28ko erantzun proposamenari dagokionez, ZAEAREN Zergadun Handien Ordezkaritza Nagusiaren aurrean egindako galdera bat dela eta. Aldundiaren iritziz, "energia emateko jarduerak inolako balio erantsirik sortzen ez duenez, ez mozkinik, ez galerarik, argi dago

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

jarduera hori egiturazkoa dela sektore elektrikoa guztiz liberalizatu arte, eta banatzaileei 2009ko uztailaren 1era arte ezarri zitzaien energia elektrikoa emateko betebeharra aginduzko betebeharra da, banatzaileen jarduerari inolako balio erantsirik ekartzen ez diena". Faktura integralaren araberako bezeroei gagozkiela, erakundeari balio erantsia ekartzen dien jarduera banaketa da, eta beraz, esan liteke salerosteko jarduera banatzeko jardueraren osagarria dela eta, horregatik, banaketan oinarrituta zehaztu behar dela bildutako sarrerak zein lurralderi egotzi behar zaizkion, tarifa integralaren araberako bezeroei dagokienez.

Banatzeko jarduerari dagozkion eragiketen bolumenaren zenbatekoa kalkulatzeko erabili den modua dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz (26. alegazioa), modu hori ez da matematikako formula batean oinarritzen, halako eran non ezin den ziurtatu Bizkaiko Lurralde Historikoari egozten zaizkion sarreren zenbatekoa bat datorrela fakturatzeko modua desberdina izan eta egindako faktura bakoitzaren kalkulu zehatza erabilia aterako litzatekeen zenbatekoarekin; dena dela, ahalik eta gehien hurbilduko litzateke bereizketa zuzenera. Hala eta guztiz ere, "energia kontsumorik ez dagoen inguruabarra aztertuta, fakturatzeko irizpide bakarra kontratatutako potentziarena izango litzateke; kontratatutako potentziaren araberako kalkuluan oinarrituta, banaketari lotuz eta horniduratik bereiziz, tarifa integralaren araberako bezeroei dagokienez, lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketen bolumenaren zenbatekoak laugarren eranskinean jasotakoak izango lirateke". Aipatutako agirian, eragiketen bolumenaren ondoko zenbatekoak jasotzen dira 2001eko ekitaldian:

- Lurralde erkidea            11. EHUNEKOA
- Bizkaia                        12. EHUNEKOA
- Gipuzkoa                    13. EHUNEKOA
- Araba                         14. EHUNEKOA

Espedientea	Ebazpena		Ukitutako administrazioak		Kontzeptua
8/2008 eta 13/2010	R7/2013	2013/04/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena

- Nafarroa  
GUZTIRA

15. EHUNEKOA  
100,00

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi zuen (27. alegazioa), bere iritziz, ZAEA beste kontraesan batean erori zela, 2001eko eta 2002 ekitaldiei lotutako aktetan ez zuelako onartu zerga obligaziodunak erabilitako irizpidea, baina Arbitraje Batzordearen aurreko alegazio idatzian [2011ko azaroaren 29koan] beste irizpide bat erabili zuen. ERAKUNDE1 erakundeak erabilitako irizpidea eraldaketa xedea duten ondasunen emateari dagokiona da [Ekonomia Itunaren 16 A).1.a, a) artikulua], eta aipatutako idatzian erabili zen irizpidea eskueran jartzeko garraiatu behar diren ondasunen emateari dagokiona da [Ekonomia Itunaren 16 A).1.a artikulua]. Horren haritik, Bizkaiko Foru Aldundiak adierazi zuen energiaren banaketak irauten duen bitartean "eraldaketa bat baino gehiago egon daitekeela, bezero bakoitzaren beharizan berezien arabera. Horrez gain, kontuan hartu behar dira energia kontsumo guneraino garraiatzeko erabiltzen diren sareen beharizan bereziak, garraioa lantegietaraino, etxebizitzetaraino edo azken transformadore elektrikoak dagoen instalazioraino egiten baita. Eta azken transformadore elektriko hori dugu, hain zuzen ere, energia kontsumitzailearen gailu elektrikoek behar duten tentsiora bihurtzen duena". Aldundiaren esanetan, energia elektriko saltzen denean, ZAEAk ulertzen du lotura puntua dela energia goi-tentsiotik behe-tentsiora bihurtzen deneko lurraldea, eta beraz, Aldundiaren aburuz, eraldatu behar diren ondasunen emateari dagokion irizpidea erabiltzen ari dela. Irizpide horri jarraiki, Aldundiaren arabera, ematea azken eraldaketa (etxebizitzan bertan, lantegian bertan...) egiten deneko lurraldeari egotzi behar zaio. Hori horrela, "ZAEA bera erortzen da kontraesanean, hala balegokio, irizpide desberdintasunak ekar litzakeen ondorioak ikusita".

e) 2012ko ekainaren 7ko alegazioen idatzian, ERAKUNDE1 erakundeak, sistema elektrikoaren deskribapen xehearen ildotik, behin eta berriro

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008 eta 13/2010	R7/2013	2013/04/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena

azpimarratu zuen banatzeko jarduera funtsezkoa dela, energiaren salmentatik bereizi beharrekoa. "Tarifa integralaren arabeko energia hornitzeko jarduera konpainiari balio ekonomikoa ekartzen dion funtsezko jardueratzat hartzea galarazten du arautze esparruak... tarifa integralaren arabera ordaindutako jarduera horren esparruan, ERAKUNDE1 erakundeak uneoro kontratatzen den potentzia bermatzeko zerbitzua ematen du, benetako kontsumoa egon zein egon ez" (40. orrialdea). "Indarrez ukatu behar da energia banatzeko jarduera hornitzeko jardueraren osagarria denik... Izan ere, jarduera bat osagarria bada jarduera nagusiaren gauzapena laguntzen, errazten edo osatzen badu, hau da, bereiz gaizatzen ez bada eta jarduera nagusitik askatzeri kez badago, argi dago elektrizitatearen banaketa ez zela tarifaren arabeko horniduraren osagarria; beharbada, jarduera nagusia eta jarduera osagarria egon beharko balira, alderantziz izango litzateke" (42. orrialdea). Argudio hori idatziaren hainbat lekutan ageri da; Hala, izaera orokorrez, 70. orrialdean, ERAKUNDE1 erakundeak ohiko garraio zerbitzuen arteko desberdintasuna aipatu zuen, garraiatutako ondasunetik bereiz zentzuri kez dutelakoan: "Kasu orokorraren aurka, energia elektrikoaren arloan, balizko kontsumitzaileek energia garraiatzeko zerbitzu iraunkorra ordaindu behar dutela onartzen dute (eta legeak helburu horretarako izendatzen duen eragileak, banatzaileak, hain zuzen, gaizatzen du), nahiz eta epe laburrean energia kontsumitzeko asmorik ez izan, edota inoiz ez kontsumitzeko asmorik izan (esate baterako, kontratu erredundanteetan edo segurtasun kontratuetan), zerbitzuaren izate hutsak bermatzen dielako behar beste energia eskuratu ahal izango dutela eskatutako potentziaren arabera" (67. orrialdea).

Bestetik, ERAKUNDE1 erakundeak argudiatu zuen "Ekonomia Itunean ez dela jasotzen osagarritasunari buruzko araurik eragiketen bolumena zehazteari dagokionez. 14.Hiru artikulua 16. artikuluan jasota dauden kokapen irizpideak aipatzen ditu eta, azken horretan, ez da azaltzen ondasunen edo zerbitzuen emateak alda daitezkeenik jarduera bat beste baten osagarria delako.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Legelariak horri buruzko araurik sartu nahi izan balu, hala egingo zukeen (37/1992 Legearen 79.Bi artikuluan egin zuen moduan). Horrela, beraz, legelariaren nahitako aukera izan da jardueren izaera ez aldatzea" (72. orrialdea).

Aurrerago, ERAKUNDE1 erakundeak adierazi zituen Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiak erabilitako irizpide batzuk jarduera nagusi ugari, jarduera bakarra baina konplexua edo jarduera nagusi bakarra eta horren osagarriak noiz diren argitzeko:

a) Kontsumitzaile ertainaren ikuspegia. Saltzaileak hainbat jarduera nagusi desberdin egiten dituen edo jarduera bakarra den zehazteko, eragiketa eztabaidagarriaren bereizgarriak bilatu behar dira, kontsumitzaile ertainaren ikuspegitik. Aztergai darabilgun auzian, ERAKUNDE1 erakundearen iritziz, "kontsumitzaile ertainak sare elektrikoan noiznahi sarbidea edukitzea eskatzen du, energia eskueran izateko, tentsio maila egokian, bere aukeramenez eta nahi duen unean".

b) Jarduera bereizezinak. Jarduera bakarra izango dugu gauzatzen diren elementuak edo egintzak hertsiki loturik badaude eta, objektibotasunez, prestazio ekonomiko bereizezina osatzen badute. Hala, jarduera horren banakaketa artifiziala izango litzateke eta elementu guztiak beharrezkoak dira prestazioa gauzatu ahal izateko. ERAKUNDE1 erakundearen aburuz, "energia elektrikoa banatzeko zerbitzua eta energia horren ematea, benetako kontsumoa dagoenetan, argi eta garbi bereizgarriak dira. Horrela frogatzen da, besteak beste, energia kontsumorik egon ezean, enpresa banatzaileak faktura egingo diolako bezeroari banatzeko zerbitzuaren zioz" (75. orrialdea).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

c) Eragiketa osagarriak. Prestazio bakarra izango da argi badago elementu batek prestazio nagusia osatzen duela eta elementu batek edo batzuek eragiketa osagarri bat edo batzuk osatzen du(t)ela. Nolanahi ere, jarduera osagarriek jarduera nagusiaren zerga tratamendua izango dute. Energia elektrikoari dagokionez, "kontsumitzaileak energia elektrikoa eskuratzea eskatzen du kontsumitzaileak berak nahi duenean eta nahi duen kantitatean, enpresa banatzaileari kontratatzen dion potentziaren mugaren barruan, elektrizitatearen zirkulazio iraunkorraren bidez garraio eta banaketa sareetatik barrena. Aukera hori, ez bakarrik momentu jakin batean eskuratzea, helburua da kontsumitzailearentzat. Bada, kontsumitzailea prest dago elektrizitatea banatzeko zerbitzuaren truke, bai eta energiaren benetako kontsumorik egiten ez denean ere, eta hala gertatzen da, kasurako, bigarren egoitzetako (edo udako egoitzetako) kontsumorik gabeko aldi luzeetan, edo industria batzuek kontratatzen dituzten sarbide alternatiboak, segurtasunagatik" (77. orrialdea).

d) Prezioaren banakaketa. Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiaren iritziz, ez da erabakigarria eragiketa baten osagai bakoitzeko prezio desberdinak ezartzea kontratu bidez edo, alderantziz, prezio bakarra ezartzea eragiketa batzuentzat; hala dagokionean, eragiketa bakoitzaren arteko prezioaren zenbatekoa datu objektiboa da eta kontuan hartu beharreko zantzu adierazgarria da eragiketa edo eragiketak kalifikatzeko. Aztergai darabilgun auzian, "tarifaren araberako bezeroen fakturretan potentzia eta energiaren kontsumoa bereiztea bada, halabeharrez, erakundearen zantzu adierazgarria energiaren banaketari eta energiaren benetako kontsumoari dagokienez. Ildo horretan, kontsumitzaileak banatzaileari guztizko zenbatekoa ordaintzen dion arren, banatzailearen fakturan bi kontzeptu edo elementu bereziak agertzen dira: potentzia eta kontsumitutako energia. Horren ondorioz, BEZ zergaren ikusmoldetik, energia banatzeko eta saltzeko jarduerak tarifa integralaren araberako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

bezeroentzat ez dira ekintza bakarra; jarduera biak ez daude, ezinbestean, hertsiki loturik eta ez dute objektibotasunez prestazio ekonomiko bakarra eta bereizezina osatzen, eta banatzeko jarduera ez da, inola ere, jarduera nagusiaren osagarria" (78. orrialdea).

6. ERAKUNDE1 erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak proposatutako eragiketen bolumenaren zenbatekoa kalkulatzeko moduaren balekotasuna Ekonomia Itunaren xedapenak kontuan hartuta aztertu behar da. Itunaren 14.Bi artikulua eragiketen bolumena zehazten du, ondoko eran:

"Eragiketen zenbatekotzat honakoa joko da: subjektu pasiboak, bere jardueran egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak direla-eta, ekitaldi batean hartutako kontraprestazioen guztirako zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun-errekargua kenduta, halakorik badago.

Ondasun-emate eta zerbitzutzat joko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga araupetzen duen legerian halakotzat definituta dauden eragiketak".

Manu horretatik ondorioztatzen da eragiketen bolumenaren zenbatekoa badela subjektu pasiboak gauzatutako eragiketen kontraprestazioen guztizkoa eta, beraz, lurraldeen arteko banaketa zehazte aldera, eragiketen kokalekuari erreparatu behar zaio, Itunaren 16. artikulua ezarritako irizpideei jarraiki, artikulua horrek arautzen baitu "eragiketak gauzaten direneko lekua". Eraitza erabakigarria dugu, hortaz, eragiketaren ingurua zehaztea, hau da, eragiketa bakarra den edo, bestela, bi eragiketa edo gehiago diren. Lehen kasuan, lekutzeko irizpideak bakarra izan behar du, halabeharrez, eragiketari esleitzen zaion kalifikazioaren arabera; bigarren kasuan, berriz, eragiketen lekua zehaztu ahal da zenbait irizpide erabiliz, eragiketa bakoitzari dagokion kalifikazioa kontuan hartuta. Eragiketa baten ingurua edo perimetroa zehazteko erabiltzen



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

den ereduak, ezinbestean, juridikoa izan behar du: "eragiketa" bat bakantzen duena eragiketa hori artezten duen kontratu edo negozio juridikoaren unitatea da.

Horrela, arestiko irizpidea baliatzen badugu enpresa banatzaileek tarifa integralaren arabeko bezeroei hornitzen dieten energia elektrikoaren emateari aplikatuta, energiaren hornidura eragiketa bakarra da, eta eragiketa lekutzeko ondoreetarako, gorputz ondasun higigarrien ematetzat kalifikatu behar da. Hain zuzen ere, ezin da eztabaidatu hornidura kontsumitzailearen eta konpainia banatzailearen arteko kontratu baten bidez gauzatzen dela eta kontratuaren xedea dela energia elektrikoa bezeroari ematea behar duen unean. Baieztapen horrek ez du ezeztatzen aldi batzuk izan badirela zeinetan bezeroak energiari kontsumitzen ez duen; alabaina, bezeroak enpresa hornitzaileari ordaindu behar dio kontraturiko potentziaren arabera. Gertaera horretan funtsaturik, ezin da ondorioztatu ordainketa egiten dela energiaren hornidura ez den prestazio baten zioz, hau da, energia banatzeko zerbitzuaren kontraprestazio aske gisa. Era berean, ez da aurreko ondorioaren aurkakoa Bizkaiko Foru Aldundiak eta ERAKUNDE1 erakundeak alegatu zutena, hots, energiaren salmentak ez duela ez mozkinik ez galerarik sortzen banaketa enpresarentzat edo ez duela balio erantsirik ekartzen.

Azken argudio hori eta, oro har, Bizkaiko Foru Aldundiak eta ERAKUNDE1 erakundeak alegatutakoak, oinarri oker batean funtsatzen dira, ulertzen baitute eragiketen bolumena lekutzeko irizpideak banaketa enpresak gauzatutako jardueren arabera behar direla, sektore elektrikoaren arauketan xedatzen diren moduan, eta ez eragiketen arabera. Hain zuzen ere, Bizkaiko Foru Aldundiak eta ERAKUNDE1 erakundeak hainbatetan azpimarratzen dute jarduera horien arteko bereizketa; zehatzago esanda, banatzeko jardueraren funtsezkotasuna nabarmentzen dute energiaren salmentaren aldean. Sektore elektrikoaren arautzeko esparruaren ikuspegitik, begien bistakoa da jarduera desberdinak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

direna eta, hartara, ez du frogabide sakonik behar. Sektorearen antolamenduaren oinarritzko abiaburuetako bat dugu, hain zuzen ere, energia ekoizteko, garraiatzeko, banatzeko eta merkaturatzeko jarduerak bereiztea. Eta bereizketa hori gailentzen zaio nortasun juridikoari eta jarduera horietako bakoitza gauzatzen duen erakundeen kontrolari, baina ezin da onartu beste esparru batera eramatea, hala nola, eragiketen identifikaziora.

Azaldutako bi esparru horien mendekotasunik eza, hots, sektore elektrikoaren antolamenduaren esparruaren eta eragiketen identifikazioaren esparruaren (non gauzatzen diren zehazteko) arteko askatasuna dela eta, garrantzi gutxikoak dira, lekutzearen ondoretarako, araubidea osatzen duten xedapenetatik atera daitezkeen irizpenak, ildo batekoak zein bestekoak izanik ere. Beraz, SELen 9. artikulua ematen duen banatzaileen definizioa enpresa ez da pisuzko arrazoia banatzaileek tarifa integralaren arabera bezeroei eskaintzen dieten energia horniduraren inguruko eragiketaren bakantasunaren aldekoa. Artikulu horretan, honela definitzen dira enpresa banatzaileak: "energia elektrikoa banatzen duten merkataritza sozietateak. Era berean, energia kontsumoguneetaraino eramateko banaketa instalazioak eraiki, horien mantentze lana egin eta kudeatu behar dituzte, eta energia elektrikoa saldu behar diete energia elektrikoa tarifaren arabera eskuratzen duten azken kontsumitzaileei eta energia elektrikoa tarifaren arabera erosten duten beste banatzaile batzuei"; horiek horrela, energiaren salmenta jasotzen du artikulua banaketaren barruan. Ildo beretik, ez da aldeko argudioa energiaren salmenta salmentatik ateratzea uztailaren 4ko 17/2007 Legeak ematen duen aipatutako xedapen horren idazketan, trantsizio aldiari amaiera emateko xedez. Aldi horren barruan, eragiketak egiten direnoko lekua zehazteko funtsezko irizpena guke energiaren banaketa eta salmenta banaketa enpresak egiten duen jardura bakarri izango balitz, ikuspegi juridikotik.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Sektore elektrikoaren antolamenduaren esparrua eta, Ituna aplikatzearen ondoretarako, eragiketak mugatzeko esparrua nahastearen ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak garrantzia kentzen dio subjektu bakarrak edo hainbat subjektuk jarduera desberdinak egiten ditu(zt)elako egitateari. Araudiaren esparruan, egitate hori, zinez, funtsik gabekoa da, baina garrantzi handikoa da eragiketa ikuspegi juridikoaren arabera identifikatu nahi denean: jarduerak desberdinek - esaterako, banaketa eta salmenta- eragiketa desberdinak sorraraziko dituzte, ezinbestean, subjektu desberdinek gauzatzen dituztenean, eta hortaz, kontratu desberdinen bitartez gauzatuko dituzte. Aitzitik, subjektu berak gauzatzen dituztenean, eragiketa bakarra den edo eragiketa batzuk diren zehazteko, kontratu bakarraren bidez edo kontratu batzuen bitartez bideratzen ote diren kontuan hartu beharko da.

Enpresa banatzaile eta bezeroaren arteko harremanaren izaera unitarioa bat dator kontratu mota horri esleitu ohi zaion izaerarekin. Doktrina zibilistari atxikitako sektore garrantzitsuek ezaugarri bereziak ezartzen dizkiete hornidura kontratuei (elektrizitatea, gasa) banaketa sare baten bitartez; izan ere, gaiaren horniduraz gain, hornitzaileak beste zerbitzu batzuk ematen ditu eta, horregatik, ohiz kanpoko kontratua da, beste kontratu mota batzuen ezaugarriak dituena: salerosketa, gauzen alokairua, zerbitzuen alokairua... Jurisprudentzia ere iritzi berekoa da; horrela, besteak beste, Auzitegi Gorenaren Arlo Zibileko Salaren 2006ko irailaren 27ko epaiak (ZZZZ/1999 zenbakidun errekurtsioa) honakoa dio:

"Jurisprudentzian behin eta berriz agertzen denez, hornidura «salgai edo zerbitzu jakin baten multzoak osatzen du, eta salgai zein zerbitzu horiek aldi jakin batzuetan ematekoak dira edo geroago zehaztekoak dira, alderdi biek alde aurretik adostutako prezioan (1988ko uztailaren 8ko epaia, 2002ko otsailaren 7ko epaia eta 2003ko apirilaren 3ko epaia). Ezohiko kontratua denez, 1984ko azaroaren 30eko epaia eman eta gero, Sala honek beti ulertu du kontratu horren erregimen juridikoa «ezin dela

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008 eta 13/2010	R7/2013	2013/04/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena

salerosketako kontratuarekin berdindu, kidekoa den arren. Alderdiek hitzartutakoari jarraiki arautzen da, borondatearen autonomia printzipioaren mesedetan (Kode Zibilaren 1255. artikulua) eta, horren ezean, salerosketari buruzko araudiaren arabera (Kode Zibilaren 1445. artikulua eta hurrengoak) eta, hala badagokio, merkataritza arlokoa bada, Merkataritzaren Kodearen 325. artikulua eta hurrengoak arabera; azkenik, betebeharrak eta kontratuen inguruko arau orokorren arabera» (2002ko otsailaren 7ko epaia). Azken batean, salerosketaren antzekoa izateak ez du esan nahi berarekin bat etorri behar duenik eta lehen kontratua arautzen duten aginduak bakarrik aplikatu ahal zaizkio hornidurari horrekin parekatzeko edo kidezeko arazoia tartean denean. Kontratu honen merkataritza izaera dela eta, Merkataritzaren Kodean araututakoa aplikatu behar da alderdiek ezarritako hitzarmenek eta kontratuaren beraren izaerak horretarako aukera ematen dutenean”.

Hainbat prestazio (hala nola, energiaren garraioa eta energiaren salmenta) barnebiltzen dituen hornidura kontratua ezohiko kontratutzat kalifikatzeak kontratuaren bakartasuna edo aniztasuna adierazteko arazoak sorrazten du. Doktrina zibilista eskudunari jarraiki, hainbat prestazio elkartu edo batzearen ondorioz, helburu bakarra lortu nahi izateak eta, beraz, unitate ekonomiko bakarra izateak, badakar energia hornitzeko kontratuaren bakartasuna zehaztea tarifa integralaren arabera bezeroentzat. Arrazoi horri eutsi dio ZAEAk linea elektrikoen osagarritasuna aldarrikatzeko, energia emateko jardueraren aldean. Bizkaiko Foru Aldundiak eta ERAKUNDE1 erakundeak arazoia ezesten dute, eta haien iritziz, ez dago inolako osagarritasunik edo, osagarritasunik izatekotan, alderantziz izango litzateke elektrizitatearen banaketak jarduera nagusia izan beharko lukeelako.

Horren haritik, ERAKUNDE1 erakundeak Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak (EEJA) erabilitako irizpideak arazoitu zituen, arestian azaldu dugun

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

eragiketa bakarra eta konplexua edo eragiketa batzuk ote diren zehazteko, BEZ zerga kalkulatzeko helburuz. Hala eta guztiz ere, irizpide horiek ez dute aldezen, hain zuzen ere, elektrizitatearen banaketaren eta energiaren salmentaren arteko bereizketa. Ildo horretan, EEJAK honakoa adierazi zuen:

"kontuan hartuta, alde batetik, Seigarren Zuzentarauaren 2. artikulua 1. atalak araututakotik ondorioztatzen dela zerbitzu emate bakoitza, oro har, bakantzat eta asketzat hartu behar dela eta, bestetik, ekonomiaren ikuspuntutik begiratuta, zerbitzu bakarrak osatutako ematea ez dela era artifizialean banakatu behar BEZ zergaren sistemaren erabilgarritasuna aldarazteko, garrantzitsua da eragiketa eztabaidagarriaren elementu bereizgarriak aurkitzea, subjektu pasiboak kontsumitzailearentzat (batez besteko kontsumitzaileentzat hartuta) hainbat prestazio nagusi edo prestazio bakarra egiten duen zehazteko".

(1999ko otsailaren 25eko epaia, C-349/96, *Card Protection Plan Ltd*, 29 parag; 2005eko urriaren 27ko epaian aipatua, C-41/04, *Levob Verzekeringen BV* eta *OV Bank NV*, 20 parag., eta 2007ko martxoaren 29ko epaia, C-111/05, *Aktiebolaget NN*, 22 parag.)

ERAKUNDE1 erakundearen aburuz, energia elektrikoaren batez besteko kontsumitzaileen helbururik behinena sarean konektatuta egotea da, benetako kontsumoa gorabehera, baina baieztapen hori kontsumitzailearen esperientzia arruntaren kontrakoa da; esperientzia horren arabera, kontsumitzailearen helbururik behinena energia erabiltzea da eta, horretarako, jakina denez, energiak erabiltzeko moduan egon behar du.

Eragiketa bakarra den edo eragiketa batzuk diren erabakitzeko xedez, EEJAK emandako irizpiderik esanguratsuena kontratuaren unitate funtzionalarena da: prestazio bakarra dago "subjektu pasiboak kontsumitzailearentzat (batez

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008 eta 13/2010	R7/2013	2013/04/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena

besteko kontsumitzailetzat hartuta) egiten dituen elementu edo egintza bi edo batzuk hertsiki lotuta egonik, prestazio ekonomiko bereizezina osatzen dutenean eta horien banakaketa artifiziala denean", 2005eko urriaren 27ko epaian, aip., 22 parag. eta 2007ko martxoaren 29ko epaian, aip., 23 parag.). 2007ko martxoaren 29ko epaian, *Aktiebolaget NN* erakundeaz den bezainbatean, zuntz optikoko kable bat emateko eta (zati batean, itsas hondotik) instalatzeko eragiketa baten bakartasuna ebaztekoan, EEJAK ondoko doktrina eman zuen (28 parag.): "Justizia Auzitegiaren jurisprudentzian oinarrituta, ondorioztatu behar da, operazio konplexu bakar bati dagokionez, prestazio bat beste prestazio nagusi baten osagarritzat jo behar dela bezeroarentzat helburua ez denean, ezpada, emailearen zerbitzu nagusiaz baldintzarik onenetan gozatzeko modua denean". Aipatutako kasuan, EEJAK ulertu zuen ez zeudela bi eragiketa, hots, kablea ematea eta kablea instalatzea, kablea ematea baizik, eta beraz, eragiketa bakarra. 2005eko urriaren 27ko epaiaren auzian, *Lebov Verzekeringen*, aurreko doktrina baliatuz, EEJAK ebatzi zuen eragiketa bakarra osatzen zutela programa informatiko bat ematea eta programa hori bezeroaren beharrezanetara egokitzea, nahiz eta jarduera horietako bakoitzaren zioz prezio jakinak eta desberdinak izan. Gainera, bigarrena lehenengoari gailentzen zitzaion, berebiziko garrantzia baitzeukan bezeroaren beharrezanei erantzuteko. Hala, auzitegiak zerbitzuak ematez jo zuen eragiketa bakarra.

EEJAren doktrina enpresa banatzaileek tarifa integralaren araberako bezeroei eskaintzen dieten energia elektrikoaren hornidurari lotutako eragiketari aplikatzen badiogu, badirudi zalantzarik gabekoa dela energia ematea eta energia garraio saretik barrena eramatea bereiztea artifiziozkoa dela eta emateak daukala izaera nagusia bezeroaren ikuspuntutik. Horren ondorioz, eragiketa bakartzat hartu eta ondasun higigarrien emate gisa kalifikatu behar zen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Auzitegi Gorenaren 2007ko uztailaren 10eko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaiak, ERAKUNDE1 erakundeak Valentziako Industria eta Merkataritzako lurralde zuzendariaren erabaki baten aurka jarritako 11568/2004 kasazio errekurtsuaren harira, berretsi zuen lineen instalazioaren osagarritasuna energiaren horniduraren aldean. Ildo horretan, epaiak erakundeari agindu zion, enpresa banatzailea zen aldetik, horniduraren kalitatea bermatzeko xedez, beharrezko azpiegitura elektrikoa gara zezan, SELen xedatutakoari jarraiki. Ondoa, bigarren zuzenbideko oinarriari dagokion testua ekarri dugu beheko lerrootara:

“Kasazioaren arrazoia gaitzetsi behar da, ez baita jotzen errekurritutako epaiak urratu dituenik erreklamazio idatzian aipatzen diren xedapenak.

Esan beharra dago xedapenek badihardutela urbanizazio berrietan instalatzen diren azpiegiturez eta, beraz, ez dagokio aztergai darabilgun auziari, non berariaz aitortzen den instalazioak eginda zeudela, gutxienez, aurreko 30 urteetan eta hornitzaileak ez zituela hartu akats teknikoak zioz.

(...)

Beste alde batetik, Sektore Elektrikoaren Legearen 41. artikulua xedatzen duenez, enpresa banatzaileek 'energiaren hornidura eman behar diete tarifaren arabera bezeroei'. Betebehar horren ondorioz, loturak dauden lekuetaraino eraman behar dira sareak, bai eta hargune elektrikoak egiaztatu leku horretatik aurrera, 2949/82 Dekretuaren Errege Dekretuaren 2. artikuluan xedatzen den moduan.

Aipatutako Errege Dekretu horren 23. artikuluari jarraiki, egia da instalazioak enpresa elektrikoak jabetzapekoak izango direla, baina horrek

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008 eta 13/2010	R7/2013	2013/04/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena

ez du esan nahi instalatu behar ez dituztenik, energia hornitzeko betebeharrari erantzun behar zaion guztietan.

Auzi horren ganean, Salak irizpena eman zuen Auzialdiko Auzitegiak aipatutako epaien bitartez, arestian esandako dekretua eta Egiatzapen Elektriko eta Horniduraren Erregulartasunari buruzko Araudia indarrean zeudelarik, erakunde banatzaileek kudeatzen dituzten eremuetako beharriaz erantzuteko handitze lanak egite aldera (EEHEAren 87. artikulua eta hurrengoak). Sektore Elektrikoaren Legea indarrean hasi ondoren, Salak auzi honi buruzko irizpena eman zuen berriro ere 2002ko azaroaren 25eko epaietan. Epai horietan, energia garraiatzeko, banatzeko merkaturatzeko eta hornitzeko jarduerak eta energia elektriko instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak jasotako hainbat manuren legezkotasuna aztertu zen eta, ondorio gisa, hauxe azaldu zen: aipatutako Errege Dekretuaren 45.1 artikulua ezarritako potentzia atalaseetatik behera, enpresa banatzaileak beharrezko azpiegitura elektrikoak eraikitzea behartuta daude, hornidura orube izaerako hiri lurzoruan kokatu behar bada.

Betebehar hori ezartzen da aurkaratutako egintzan eta errekurritutako epaiak horren legezkotasuna aldarrikatzen du...”.

Aurreko arrazoibideak ikusita, bidezkoa da Ekonomia Itunaren kontraktatzat jotzea Bizkaiko Foru Aldundiak eta ERAKUNDE1 erakundeak proposatutako modua eragiketen bolumenaren zenbatekoak kalkulatzeko eta, horren ondorioz, aplikagarritzat hartu behar dira ERAKUNDE1 erakundeak aitortutakoak 2001eko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergan.



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Beraz, honako auzi hauek mahairatutako gatazken konponbidea aurkitzeko, ezinbestean zehaztu behar da, lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketen bolumenaren zenbatekoa kalkulatzeko xedez, Nafarroako Foru Erkidegoa lurralde erkidearen barrukoa ote den. Izan ere, baldintza horren menpekoa baita lurralde erkidean gauzatutako eragiketen bolumena guztizkoaren ehuneko 75era iristen den ala ez den iristen.

"Lurralde erkidearen" kontzeptua, eragiketen bolumenaren zenbatekoa kalkulatzeko helburuz

7. Ekonomia Itunaren 14.Bat eta 19.Bat artikuluetan jasotzen den "Lurralde erkidearen" kontzeptuari dagokion auzia (auzi horren konponketan datza elkartutako gatazken gaineko irtenbidea), eztabaidagai nagusitzat aurkeztu zen lehen gatazkan, 8/2008 gatazkan, hain zuzen ere. 13/2010 gatazkan, berriz, Bizkaiko Foru Aldundia eta ERAKUNDE1 erakundea aurreko gatazkan aurkeztutako alegazioei lotu zitzaizkien. Kontuan hartu behar da, 8/2008 gatazka dela eta, ZAEAREN alegazio idatzia 2009ko otsailaren 12koa dela eta, beraz, ezin izan zen aipatu idatzi horretan Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2009ko maiatzaren 26ko epai garrantzitsua. Epai hori Nafarroako Foru Erkidegoak Estatuaren eta erkidego horren arteko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak hartutako erabaki batzuen aurka jarritako 365/2008 errekurtsioa ebazteko eman zen. ZAEAK epaia aipatzeko aukera izan zuen geroago, 2011ko arazoaren 29ko alegazio idatzian, hain zuzen, 13/2010 espedienteari lotuta. ERAKUNDE1 erakundeak, ordea, aipatutako epai horren gainean jarduteko aukera izan zuen 8/2008 espedienteari lotuta, 2013ko martxoaren 14ko idatzian. Bertan, 13/2010 gatazkan aurkeztutako alegazioen laburpena ageri zen, alegazio horiek aurrekoak izan arren (2012ko ekainaren 7koak).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

8/2008 gatazkari lotutako alegazio idatzian, ZAEAk Ekonomia Itunaren 14.Bat artikulua balizko hiru interpretazio eman zituen:

1.a. Nafarroan gauzatutako eragiketak lurralde erkidean burututakotzat jotzea.

2.a. Nafarroan gauzatutako eragiketak ez dira kontuan hartzen kalkulua egiteko.

3.a. Estatuko Administrazioaren menpeko lurraldean gauzatutako eragiketak Nafarroan eta euskal lurraldeetan gauzatutakoekin erkatu behar dira.

1) ZAEAk aldezen duen lehen interpretazioari eusteko, ondoko ebazpenak eta txostena aipatu zituen:

- 12/1981 Legeak onetsitako Ekonomia Itunaren 40. artikulua araututako lehengo Koordinazio Batzordearen 1995eko apirilaren 7ko ebazpena.

- Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunari buruzko Arbitraje Batzordearen ebazpenak, 16/2007 eta 17/2007 gatazketan emandakoak. Aipatutako ebazpenen aurkako errekurtsioa jarri zen eta arestian aipatu dugun Auzitegi Gorenaren 2009ko maiatzaren 26ko epaiak ebatzi zuen, errekurtsioa gaitzetsita.

- AEANen 2008ko urriaren 23ko ebazpena. Aurrekarietan azaldu den moduan, Auzitegi Nazionalak baliogabetu zuen epai hori 2011ko martxoaren 23ko epaiaren bidez, eskumen faltagatik.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008 eta 13/2010	R7/2013	2013/04/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena

- ZAEAREN Finantza eta Zerga Ikuskatzaitzako Sailaren Legezko Ordenamendu eta Aholkularitza Juridikoaren Zuzendariorde Nagusiaren 2004ko otsailaren 23ko txostena.

2) ZAEAK mahairatutako bigarren interpretazioari dagokionez, erakunde horren esanetan "Bizkaiko Foru Aldundiak aldeztu omen duena, gatazka aurkeztu duelako (hala ere, ez du horrela arrazoi inongo idatzitan, galdera egiteko idatzian izan ezean...)", esan behar da oinarri hartu zuela Bizkaiko Foru Ogasunak 2003ko maiatzaren 23an ERAKUNDE1 erakundeak egindako galdera baten erantzunean. Erantzunaren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, eta horrek errekurtsoa baietsi zuen 2006ko urtarrilaren 31ko epaiaren bidez. Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak, ordea, ERAKUNDE1 erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak jarritako kasazio errekurtsoa (ZZZZ/2006 zenbakiduna) gaitzetsi zuen 2011ko otsailaren 21eko epaiaren bidez, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumen eza berretsi zuen Auzialdiko Auzitegiak adierazitako galderari erantzuteko, ulertu baitzuen Ekonomia Itunak araututako Arautegia Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak horretarako eskumena zeukala.

ERAKUNDE1 erakundeak 2001eko ekitaldian aitortutako eragiketen bolumenaren lurraldekako zenbatekoa aintzat hartuta eta Nafarroari dagokiona kanpoan utzita, eragiketen guztizko bolumenaren zenbatekoa % 96,32koa litzateke:

- Lurralde erkidea	16. EHUNEKOA
- Bizkaia	17. EHUNEKOA
- Gipuzkoa	18. EHUNEKOA
- Araba	19. EHUNEKOA
- EAE guztira	<u>17.% + 18.% +19.%</u>

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008 eta 13/2010	R7/2013	2013/04/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena

Guztira                    16.% + EAE guztira

ZAEAREN iritziz, zenbatekoak beste modu batean kalkulatu beharko ziren, Estatuko Administrazioaren menpeko lurraldean gauzatutako eragiketak eta euskal lurraldean gauzatutakoak 100eko oinarriaren arabera erkatuz. Horrela eginez gero, ondoko ehunekoak aterako ziren:

- Estatuko administrazioaren menpeko lurraldea                    20.EHUNEKOA
- Euskal administrazioaren menpeko lurraldea guztira                    21. EHUNEKOA

Kalkulu horien arabera, eragiketen guztizko bolumenaren ehuneko 75 baino gehiago Estatuko Administrazioaren menpeko lurraldean gauzatu ziren.

3) Hirugarren interpretazioari dagokionez, ZAEAK adierazi zuen ez zeukala legezko oinarririk eta Ekonomia Itunak ez duela babesten.

2011ko azaroaren 29ko alegazioetan (hirugarren zuzenbideko oinarria), ZAEAK, lehenengoz eta bat, berriro aipatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Koordinazio Batzordeak 1995eko apirilaren 7an hartutako erabakia. Erabaki horri jarraiki, lurralde erkidearen esanahiaren "interpretazio ofiziala" Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean adostu zen osaera parekideko organo horren barruan. Gero, lehen aipatu dugun Auzitegi Gorenaren 2009ko maiatzaren 26ko epaia gogorarazi zuen ZAEAK.

8. Auzitegi Gorenaren 2009ko maiatzaren 26ko epaia 365/2008 zenbakidun administrazioarekiko auzi errekurtsua dela eta eman zen eta errekurtsua Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen 2008ko apirilaren 4ko 16/2007 eta 17/2007 ebazpenean aurka jarri zen. Ebazpen horien bitartez, bi administrazioen ordezkarien arteko desadostasuna ebatzi zuen Arbitraje

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Batzordeak, "lurralde erkidearen" esanahiaren inguruan galdetutakoei erantzuteko xedez, Ekonomia Itunaren 18.2 artikulua nola aplikatu behar zen argitzeko. Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, manu horrek ondokoa xedatzen du:

"Tributuak bi administrazioetan ordaindu behar dituzten subjektu pasiboek sozietatearen zerga egoitzari dagokion administrazioaren araudia aplikatuko dute. Hala ere, aurreko ekitaldian guztizko eragiketen ehuneko 75 edo gehiago lurralde erkidean gauzatu badituzte, 19, 20, 21 eta hurrengo artikuluetan ezartzen diren lotura puntuetan ezarritakoari jarraiki, zerga egoitza Nafarroan duten subjektu pasiboak Estatuko araudiaren menpekoak izango dira".

Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, ebazpen bietan, honela ebatzi zuen lurralde erkidearen esanahiaren inguruko galdera: "Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunaren 18.2 artikulua jasotzen duen 'erregimen erkideko lurraldetzat' jo behar da Nafarroako Foru Erkidegotik at dagoen Espainiako Estatuko lurralde guztia".

Nafarroako Foru Erkidegoak jarri zuen Auzitegi Gorenaren 2009ko maiatzaren 26ko epaia ekarri zuen errekurtsioa. Hala ere, errekurtsioa prozeduran txertatu zen ERAKUNDE2 erakundearen eskariz. Aipatutako epaiaren doktrina hirugarren zuzenbideko oinarrian agertzen da, ondoan adierazten den moduan:

"Gure interpretazioaren xedea da Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunak jasotzen duen «erregimen erkidegoko lurraldea» esapidearen esanahia zedarritzea, uztailaren 15eko 25/03 Legean ageri dena aintzat hartuta.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Nabarmendu beharreko lehen oharra dugu Ekonomia Itun horretan bi lurralde administrazioek parte hartzen dutela. Alde batetik, Nafarroako Foru Erkidegoa dugu, eta erkidego horren lurraldea zehatz-mehatz mugatuta dago itunaren ondorioetarako; beste alde batetik, Estatuko Administrazioa dugu eta horren lurraldea ere zehatz-mehatz mugatuta dago araudi horretan, hau da, Nafarroako Foru Erkidegotik at dagoen Espainiako Estatuaren gainerako lurraldea.

Esandako guztiaren bigarren ondorioa dugu ezinezkoa dela hirugarren lurralderik kontuan hartzea, esan nahi da, parte hartzen duten administrazioetako bat ez den lurraldea. Hirugarren lurralderik egongo balitz, Ekonomia Itunean jasota ez dagoenez, oso zalantzazkoa litzateke itunaren baliozkotasuna eta, jakina denez, hori ez da auzilarien nahia.

Hirugarren ondorioa dugu berdin diola Estatuko Administrazioaren menpeko «erregimen erkideko lurraldea» osatzen duen lurralde aniztasuna zein den; izan ere, garrantzitsuena eta funtsezkoa dugu horrela deiturikoak osatzen duela Estatuko Administrazioaren menpeko lurraldea Ekonomia Itunaren barruan. Horregatik, ERAKUNDE2 erakundearen ordezkariak egindako ahalegin txalogarria Espainiako Konstituzioan, Autonomia Erkidegoen Estatutuetan eta lege berezietan «erregimen erkideko lurraldea» eta «foru lurraldea» bereizten direla egiaztatzeko helburuz, alferrikakoa izan da. Interpretazioa zuzena izan arren, oraingo honetan ebazten ari garen auzian, garrantzitsuena, erabakigarriena, funtsezkoena, ezin eztabaidatuzkoa ez da «Espainiako ordenamendu juridikoan erregimen erkideko lurraldetzat» zer hartzen den; ezpada, Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunari buruzko Lege Berezian, argiro ulertzen den moduan, erregimen erkideko lurraldetzat hartzen dela Nafarroatik kanpoko Espainiako Estatuaren gainerako lurralde guztia.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Gertaera horiek beste modu batean ulertzea ezinezkoa litzateke lehen aipatu dugun beste lurralde administrazio horrek parte hartuko ez balu, eta parte hartzekotan, aztergai darabilgun sistema osorik birpentsatu beharko litzateke".

9. ZAEren iritiz, "epaiaren hitzez hitzeko edukia hain da argia, ezen ez da inolako interpretaziorik egin behar, eta Auzitegi Gorenak emandako ondorioak berdin-berdin balia daitezkeela alegazioak aurkeztu direneko inguruabarrean: Euskal Autonomia Erkidegorako Ekonomia Itunari dagokionez ere, bi lurralde administrazioek parte hartzen dute itunean, eta biek zehatz-mehatz zedarritutako lurraldeak dituzte itunaren ondoretarako. Hala, ageri diren bi lurraldeez kanpoko hirugarren lurralderik aintzat hartzeko aukerarik ez dagoenez, gauza nabaria da Ekonomia Itunaren ikuspegitik, lurralde erkidea izan behar duela Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoen barrukoa ez den Espainiako Estatuaren gainerako lurraldeak". (Jatorrizkotik azpimarratuta).

10. 2013ko martxoaren 14ko 8/2008 gatazkaren inguruko alegazio idatzian, ERAKUNDE1 erakundeak ZAEren 2009ko otsailaren 12ko idatzian aurkeztutako ebazpen eta txostenen ziurtasunaren indarraren aurka argudiatu zuen. Kasu batzuetan, hala nola, Ituna Koordinatzeko Batzordearen 1995eko apirilaren 7ko erabakiaren eta ZAEren Finantza eta Zerga Ikuskatzaitza Sailaren 2004ko otsailaren 23ko txostenaren aurka, horien izaera loteslea ezesteko; Beste kasu batzuetan, berbarako, Auzitegi Nazionalaren 2011ko martxoaren 23an baliogabetutako AEANen 2008ko urriaren 23ko ebazpenaren aurka, ZAEren tesiaren aldeko jarreraren kontra egiteko.

Beste alde batetik, ERAKUNDE1 erakundeak Auzitegi Gorenaren 2009ko maiatzaren 26ko epaia gaitzetsi zuen eta gorago aipatu dugun hirugarren zuzenbideko oinarria transkribatu zuen, honakoa argudiatuta: "adierazpen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

horien alde, epaiak berak arestian aztertutako Ekonomia Itunaren Koordinazio Batzordearen 1995eko apirilaren 7ko erabakia aipatzen du eta, horren iritziz, erabakiaren edukiak ondorioak ahalbidetzen ditu". Aipatu dugun idatziak gaineratu zuen transkribatutako hirugarren zuzenbideko oinarrian ageri ziren adierazpenak "berez ez direla nahikoak aztergai darabilgun auzian aintzat har daitekeen aplikazio orokorreko irizpidea osatzeko eta, bestetik, ez direla bidezkoak zuzenbidean".

ERAKUNDE1 erakundearen idatziak hau ere bazekarren:

"Transkribatutako epaiak aldeztu duen ondorio nagusia, hau da *'parte hartzen duten administrazioez kanpoko hirugarren lurraldea aintzat hartzen zeharo ezinezkoa dela'* adieraztea, alderdi honen iritziz, Euskal Autonomia Erkidegoak daukan finantza eta zerga autonomia, Konstituzioak berak aitortuta, oinarri dituen funtsezko printzipioen aurkako preterizioa da. Izan ere, epaian adierazten den arrazoi beragatik, EAEko zerga agintaritzak parte hartzen ez duenez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunean ezarritakoa bakarrik aplikatu ahal izango da parte hartzen duten administrazioek erabateko zerga ahalmena duten lurraldeetan".

Aurrerago hauxe jaso zuen idatziak:

"EAEko zerga administrazioak Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunean ez parte hartzea bada, behin eta berriro aipatu dugun Auzitegi Gorenaren epaiak adierazitakoaren aurka, itun horren ondorio juridikoak euskal lurralde historikoetara hedatzeko ezintasunaren isla, hau da, Konstituzioak, lehen xedapen gehigarriaren eta Ekonomia Itunaren beraren bidez, lurralde historikoei ematen dien *status* edo egoera errespetatzea bermatzen duen interpretazio bakarra.



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

[...]

Beraz, Ekonomia Itunaren esparruaren barruan, "lurralde erkideaz" ulertu behar denaren inguruan Salak azaldutako ondorioetan lehenengoa Epaiak interpretazioa oinarritzeko erabiltzen dituen argudioen aurkakoa da guztiz. Salak aldeztu duen bezala, Nafarroako Foru Erkidegoko Ekonomia Itunean parte hartzen duten administrazioen arteko harremana artezten duen aldebigotasunak eragotzi behar du, lehen aipatutako epaiak jasotzen dituen modu berean, Estatuko Administrazioaren indar loteslea heda dadin beste lurralde batzuetan, hala nola, euskal lurraldeetan, horietan zerga ahalmen eta eskumenak itundutakoak baitira. Ekonomia Itunak ezartzen duen "lurralde erkidearen" barruan euskal foru lurraldea sartzea ezinezkoa da lurralde horietako zerga eskumena daukan administrazioak parte hartzen ez badu, hau da, foru administrazioak parte hartzen ez badu. Horregatik, gure iritziz, behin eta berriro aipatu dugun epaiak darabilen interpretazioa, kontraesankorra izateaz gainera, ez da bidezkoa Zuzenbidean eta, jarraian aztertuko dugun legez, gure ordenamendu juridikoaren gainerako arauetan (gogoratu beharra dago Ekonomia Ituna ordenamendu horren zatia dela) finkatu den lurralde erkidearen kontzeptuaren kanpokoak".

ERAKUNDE1 erakundeak "interpretazio finalista, sistematiko eta ordenamendu juridikoarekin bat datorrena", aldeztu zuen eta, horretarako, abenduaren 17ko Tributuen 58/2003 Lege Orokorraren 12.2 artikulua baliatu zuen. Artikulu horri jarraiki, "arauetan erabilitako terminoak tributuen araudian zehazten ez diren bitartean, zentzu juridiko, tekniko edo ohikoaren arabera ulertuko dira, dagokionaren arabera", eta zentzu hori "lurralde erkidea" delako terminoari eratxiki beharko zaio, Euskal Autonomia Erkidegoko Itunak eta Nafarroako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Itunak zehazten ez dutelako. Hori esanda, idatziak ondoko xedapenak zerrendatu zituen:

- Espainiako Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarria,
- Abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa, Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzekoa,
- Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskadiko Autonomia Estatutuarena,
- Irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoa, Autonomia erkidegoen finantzaziorari buruzkoa,
- Abenduaren 27ko 21/2001 Legea eta abenduaren 18ko 22/2009 Legea, Erregimen komuneko komunitate autonomoen eta autonomia estatutua duten hiriak finantzatzeari buruzkoa,
- Laga diren zergak eta itundutako zergak arautzen dituzten Estatuko legeak,
- Maiatzaren 23ko 12/2002 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena.

Ekonomia Itunari gagozkiola, ERAKUNDE1 erakundeak adierazi zuen foru lurraldearen eta lurralde erkidearen arteko kontrajartzea manu askotan igartzen dela "Horrela egiaztatzen da aipatutako Legearen [12/2002] manu askotan, esate baterako, 6, 7, 8, 9, 10 eta 11. artikuluetan, laugarren eta seigarren xedapen iragankorretan eta azken xedapen bakarrean". Ildo horretan, hauxe gaineratu zuen: "manu horietatik ondorioztatzen da lurralde erkidea bat datorrela Estatuko zerga araudi orokorraren aplikazio eremuarekin. Gauza bera esan daiteke zergen salbuespena, kudeaketa eta ikuskapena arautzen duten arau guztiei dagokienez"; hala, Sozietateen gaineko Zergaren arloan, 15, 18 eta 19. artikulua aipatu zituen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Azalpen horretan oinarrituta, ERAKUNDE1 erakundeak ondoko ondorioa atera zuen: "Oro har hartuta, [aipatutako xedapenek osatzen duten] Espainiako ordenamendu juridikoari doakion zentzu juridikoarekin bat etorritik, lurralde erkidea Espainiako lurralde osoa da, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa kenduta, azkenak foru lurraldeak baitira. Laburbilduz, eztabaidagai den auziari dagokionez, Nafarroa ez da lurralde erkidea, ezpada, foru lurraldea, eta egoera horri dagozkion ondorio juridiko guztiak aldarrikatu behar dira".

ERAKUNDE1 erakundearen iritziz, "lurralde erkidea" esapidearen ohiko esangurak aurreko ondorioa berresten zuen. "'Lurralde erkidea' kontzeptua foru lurraldeetara hedatzeko interpretazioa aldeztu duten eraikuntza juridiko konplexuak alde batera utzita, ikuspegi semantikotik, 'erkide' eta 'foru' izenondoek 'lurraldearen' kontzeptuaren hedadura argiro zehazten dute, modu honetara bereiziz: Zuzenbide erkidearen menpeko lurraldea edo Foru Zuzenbidearen menpeko lurraldea. Foru Zuzenbidearen eraginpean dauden lurraldeak 'lurralde erkidearen' barrukoak izan daitezkeelako baieztapenari oso nekez eusten zaio".

Azkenik, ERAKUNDE1 erakundeak adierazi zuen "aurkaratutako interpretazioaren akatsik behinena gaizki ulertutako Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatuaren arteko aldebikotasuna dela, Ekonomia Itunetik aldarrikatuta. Ildo horretan, ZAEA aldebikotasun horretan oinarritzen da, Espainiako ordenamendu juridiko osoa ahaztuta, nahiz eta, zalantzarik gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko foru araubidea eta Nafarroako foru araubidea aipatutako ordenamendu horren atal diren".

11. Agerikoa da Arbitraje Batzorde honek ezin dituela eztabaidatu ERAKUNDE1 erakundeak argudiatutako arrazoiak Auzitegi Gorenaren 2009ko maiatzaren 26ko epaia ez dela bidezkoa Zuzenbidean, erakundeak dioen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

moduan, eta beraz, ezin du jarrerarik hartu arrazoi horien aurrean. Hori eginez gero, Batzorde honek beretzat hartuko luke modu pentsaezin eta ulertezin batean imajinatzea ere zentzugabekoa litzatekeen ahalmen bat. Hortaz, aipatutako epaiaren aurrean, Arbitraje Batzordeak egin dezakeen gauza bakarra da Auzitegiaren irizpidea aplikagarria ote den egiaztatzea berak erabaki beharreko auziari dagokionez eta, epaiari men eginda, auzia ebaztea horrekin bat etorriz.

Ez dago zalantzarik, Auzitegi Gorenak behin eta berriro aipatu dugun epaian darabilen doktrina argia eta zalantzarik gabekoa dela eta, gainera, aplika daiteke aztergai darabilgun auzian, eztabaidagai den autua eta emandako epaian aztertutakoa berdina baitira. Horren ondorioz, Ekonomia Itunaren 14.Bat eta 19.Bat artikuluek jasotzen duten eragiketen bolumenaren zenbatekoa kalkulatzeko helburuz, Arbitraje Batzordeak ebatzi behar du Nafarroako lurraldea lurralde erkidearen barrukoa dela.

Hala eta guztiz ere, Auzitegi Gorenaren epaiari men eginagatik, Arbitraje Batzordeak irizpen batzuk egin nahi ditu ERAKUNDE1 erakundeak argudiatutako arrazoiengandik inguruan. Alde batetik, irizpen horiek jorratzen dute ERAKUNDE1 erakundeak atera nahi duen ondorioa, foru erregimeneko eta erregimen erkideko zerga araudiak osatzen dituzten hainbat mailatako legeko xedapenak aztertu ostean. Jakina denez, xedapen horiek guztiek erregimen biak eta lurralde biak bereizten dituzte eta esan barik doa foru izaera aitortzen dietela euskal lurralde historikoei eta Nafarroako Foru Erkidegoko lurraldeari. Alabaina, erantzun xume hori ez da nahikoa argi gera bedi erantzuna emateko ez zela beharrezkoa ERAKUNDE1 erakundeak egindako ordenamendu juridikoaren azterketa luze eta zorrotza manu batzuetan ageri den lurralde erkidearen kontzeptuak sorrarazitako arazoari erantzuteko. Izan ere, Ekonomia Itunean, gatazka mota hauetan parte hartzen duela eta, kontzeptu hori foru erregimeneko lurraldeari kontrajartzen zaio foru lurralde baten ikuspegitik.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

Auzitegi Nagusiak 2009ko maiatzaren 26ko epaiaren hirugarren zuzenbideko oinarrian adierazi zuen legez (aurreko zortzigarren atalean transkribatuta dago), aztergai darabilgun auzia ebazteko irizpiderik garrantzitsuena ez da "erregimen erkideko lurraldea" zeri deitzen zaion Espainiako ordenamendu juridikoan, ezpada, "lurralde erkidea" esapideak zer esan nahi duen mahairatutako gatazkari aplikatu ahal zaizkion manuetan. Eta arazoaren irtenbidea topatzeko, beste gogoeta batzuk egin behar dira, funtsean, aipatutako manuen helburuak azterturik.

ERAKUNDE1 erakundeak aipatzen dituen Ekonomia Itunaren manuek ez diote oinarri nahikorik ematen erakundeak azaldutako ondorioari. Xedapen horietako batzuetan, esaterako, 8, 9 eta 10. artikuluetan, "lurralde erkidea" esapideak, egiatan, ez du aintzat hartzen Nafarroako lurraldea, baina lehen esan dugun moduan, hori ez da nahikoa frogatzeko horixe dela esapide horren esangura argia eta ezbairik gabekoa Ekonomia Itun osoan; hain zuzen ere, ez da horrela gertatzen erakundeak aipatutako 19. artikuluan, gatazka hauetan eztabaidagai bihurtu delarik. ERAKUNDE1 erakundeak aipatutako Ekonomia Itunaren beste manu batzuek ez dute "lurralde erkidea" esapidea erabiltzen (6, 7, 11, 15 eta 18. artikulua, laugarren eta seigarren xedapen iragankorrak eta azken xedapena), eta beraz, ezin dira oinarriztat erabili termino hori zuzen interpretatzeko.

### ZAEAREN betebeharra jarduketak eteteko

12. Aurrekarietan azaldu genuen moduan, ZAEAK burututako jarduketak balio gabetasunari buruzko auzia, Ekonomia Itunaren 66.2 artikulua ezarritakoari jarraiki, Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka aurkezten denean jarduketak eten behar dituelako betebeharra urratu duelakoan, honako gatazka hauen hasiera-hasieratik azaldu da. Bizkaiko Foru Aldundiak betebeharraren horren urraketa nabarmendu du ZAEARI bidalitako inibizio errekerimendu guztietan

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

eta gatazkak mahairatzeko idatzi guztietan. Hala ere, Z/ZZ taldearen zatizko ikuskapenari lotutako lehen jarduketan aurrean jarritako alegazioa gaitzetsi zuen azkenean Auzitegi Gorenak, 2008ko uztailaren 10eko epaiaren bidez, aurrekarietan esan bezala, Arbitraje Batzordea artean eratuta ez zegoelako.

Gerora, auzia berriro azalerratu zen 2001eko ekitaldiari zegokion 2008ko maiatzaren 6ko AZZ-ZZZZZZZZ eta 2002ko ekitaldiari zegokion 2008ko ekainaren 26ko AZZ-ZZZZZZZZ ikuskapen akten zioz, bai eta akta horien ondoriozko 2008ko irailaren 6ko eta azaroaren 4ko likidazio egintzen zioz ere, hurrenez hurren. Bitxia bada ere, ZAEAk mahairatu zuen auzia 2009ko otsailaren 12ko 8/2008 gatazkan, artean Bizkaiko Foru Aldundiak auzibideratu barik zeukala, eta auzi nagusizat jo zuen 13/2010 gatazkan, aurreko gatazkan konpondu gabe zegoelako, 2011ko azaroaren 29ko alegazio idatziaren bidez.

ZAEAREN iritziz, jarduketak eteteko betebeharra indarrean egon zen 2008ko apirilaren 28tik (data horretan jakinarazi zioten 8/2008 gatazkaren berri) 2008ko maiatzaren 21era. Azken data horretan, ZAEARI jakinarazi zioten Arbitraje Batzordearen 2008ko maiatzaren 12ko erabakia, gatazkaren izapidetzea onartzen ez zuena. Jakinarazpena jasota, ZAEAREN aburuz, izapidetzea ez onartzeak amaiera eman zion jarduketak eteteko betebeharraren indarraldiari. Zerga Agentziaren iritziz, aipatutako daten arteko aldia izan zen "ZAEAREN ikuskapen jarduerak eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztutako eskumen gatazka, benetakoa eta eragingarria, batera gertatu ziren bakarra".

Horrez gain, ZAEAk ondokoa adierazi zuen:

"eskumen gatazkak iraun bazirauen arren, egiaztapen eta ikerketa prozedura amaitu eta ZAEAREN ikuskatzailetza organoek likidazio erabakia eman ostean, eskumen gatazka Auzitegi Gorenaren aurrean izapidetzean

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

ari zela eta horixe izan zela, hain zuzen ere, Arbitraje Batzordeak gatazkaren izapidetzea ez onartzeko arrazoia.

Eskumen gatazka batean parte hartzen duten administrazioen jarduketak eteteko betebeharra ezartzen duten Ekonomia Itunaren xedapenak eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren xedapenak aplikagarriak dira eskumen gatazka Ekonomia Itunak arautzen duen Arbitraje Batzordearen egoitzan aurkeztu bada, ez besterik. Gatazka beste instantzia judicial edo administratiboren batean aurkeztu bada, ez da bidezkoa aipatutako xedapenak aplikatzea eta, beraz, ez da bidezkoa jarduketak etetea, horren inguruko jurisprudentzia oparoak jasotzen duen legez".

Baieztapen hori funtsatzeko, ZAEAk Auzitegi Gorenaren 2008ko uztailaren 10eko epaia, 2011ko apirilaren 9ko epaia (2475/2006 zenbakidun errekurtsua) eta 2011ko martxoaren 10eko epaia (5775/2006 zenbakidun errekurtsua) aipatu zituen.

Eskarian, ZAEAk Arbitraje Batzorde honi galdatu zion haxe erabakitzea auziari dagokionez: "ez dela bidezkoa ZAEAk burututako ikuskapen jarduketak eteteko aldiak luzatzea, 8/2008 zenbakidun eskumen gatazka Arbitraje Batzorde horren aurrean aurkeztu delako".

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta ERAKUNDE1 erakundearen ustez, jarduketak eteteko betebeharra ez zen mugatu 8/2008 gatazka aurkeztu zenetik Arbitraje Batzordeak izapidetzea ez onartzeko erabakia hartu arte, ZAEAk adierazi moduan. 13/2010 gatazka dela, 2012ko maiatzaren 23ko idatziaren bidez, Aldundiak argudiatu zuen Arbitraje Batzordeak hasieran aurkeztutako gatazkaren izapidetzea onartu zuela, ez gatazka berria izapidetzea, 2008ko maiatzaren 12ko izapidetzea ez onartzeko erabakia baliogabetu zuen 2008ko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
8/2008 eta 13/2010	R7/2013	2013/04/24	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena

azaroaren 10eko erabakiaren bidez. Horren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak ondorioztatu zuen 2008ko martxoaren 14ko eguna, bederen, hartu behar dela gatazka aurkeztu zeneko datatzat, "data horretan aurkeztu baitzen era ofizialean Arbitraje Batzordearen aurrean". Eta tesi hori aldezteko, Auzitegi Nazionalaren 2011ko martxoaren 23ko epaia argudiatu zuen Aldundiak. Epaiak honakoa dio:

"Arbitraje Batzordearen 2008ko maiatzaren 12ko ebazpena baliogabetzeak ez du eskumen gatazka berririk sorrarazten, ezpada, 2008ko maiatzaren 14an aurkeztutako gatazkaren izapidetzea onartzea. Hortaz, Ekonomia Itunaren Legearen 66.Bi artikulua eta Arbitraje Batzordearen Araudiaren 15.1 artikulua xedatutako jarduketak eteteko ondorioak indarrean hasi behar dira 2008ko martxoaren 14tik. Ildo horretan, gogorarazi behar dugu Arbitraje Batzordearen 2008ko azaroaren 10eko ebazpenak honela diharduela: '...aipatutako gatazkaren izapidetzea onartzea', hau da, sasoia zenean aurkeztutako gatazkaren izapidetzea onartzea, ez gatazka berri batena".

Horren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz, "ZAEAk Ekonomia Itunaren 66. artikulua xedatutako betebeharra urratu zuen, behintzat, 2008ko martxoaren 14tik aurrera, eta urratze horretatik eratorritako ondorioak gertatu ziren".

13/2010 espedienteari lotutako 2012ko ekainaren 7ko alegazioen idatzian, ERAKUNDE1 erakundeak luze-zabal transkribatu zituen Auzitegi Nazionalaren 2011ko martxoaren 23ko epaian jasotako zuzenbideko oinarriak. Oinarri horiei jarraiki, erakundeak ondorioztatu zuen, Ekonomia Itunaren 66.2 artikulua onoreetarako, gatazka 2008ko martxoaren 14tik aurrera substantziatu edo bideratu zela modu iraunkorrean, eta horregatik "ikuskapen akta (AZZ-ZZZZZZZZ zenbakidun akta) ez egindakotzat hartu behar da, ERAKUNDE1



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

erakundearen 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, aktari 2008ko ekainaren 26an hasiera eman zitzaiola". Horren ondorioz, Arbitraje Batzordeari eskatu zion ondokoa adieraztea: "ZAEAk jarduketak eteteko betebeharra urratu du, Z/ZZ taldearen aurkako 2008ko ekainaren 26ko desadostasun akta bakarra ondu zuen ikuskapen prozedurari dagokionez. Prozedura horretan, ERAKUNDE2 erakundea ageri zen sozietate nagusi gisa, 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zerga zela eta (AZZ-ZZZZZZZZ zenbakidun akta). Hala, akta hori ez gauzatutakotzat jotzeko eskaria egiten da".

13. Bizkaiko Foru Aldundiak eta ERAKUNDE1 erakundeak Arbitraje Batzorde honi eskatu zioten batzordeak adieraz dezan ZAEAk urratu zuela ikuskapen jarduketak eteteko betebeharra, organo honen aurreko gatazka aurkeztu zela eta. Argi dago, baina, bi alderdien nahia adierazpen lauso honetatik haratago joatea dela eta, iradokitzen denez, aztertutako jarduketaren baliozkotasuna aurkaratzea da egiazko xedea, hau da, azken batean, Z/ZZ taldearen 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko aktak eta horietatik eratortzen diren likidazio egintzak baliogabetzea. Bestetik, horixe bera dugu ZAEAk aurkaratzen duen asmoa, prebentzioz eta era inplizituan. Bizkaiko Foru Aldundiak, hain zuzen ere, urratzearen zioz "sor daitezkeen ondorioak" aipatu zituen eta ERAKUNDE1 erakundeak berariaz adierazi zuen akta hori "ez-egindakotzat jo behar dela". Hala ere, ez zioten Arbitraje Batzordeari zuzenean eskatu egintzok baliogabetzea, jakitun zirelako organo honek ez daukala eskumenik baliogabetasuna ebazteko; bistakoa da egintzen baliozkotasuna aurkaratzeko bide egokia beste bat dela.

Nolanahi ere, ZAEAk jarduketak eteteko betebeharra urratu zuela modu lausoan adieraz zezala eskatu zion ebazpenak badakar, berez, urraketa sortu zuten jarduketaren baliozkotasunaren inguruko irizpena ematea. Hain zuzen ere, esan behar da aipatutako betebeharra urratu zela adieraziko balitz, egintza urratzaileen baliogabetasuna ere adierazi beharko litzatekeela, ezinbestean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

lido horretan, Auzitegi Nazionalaren Administrazioarekiko Auzien Salak, hainbatetan aipatutako 2011ko martxoaren 23ko epaiaren bidez, baliogabetzat jo zuen AEANren 2008ko urriaren 23ko ebazpena, hain zuzen ere, Ekonomia Itunaren 66.2 artikulua urratu zuelako. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundia keta ERAKUNDE1 erakundeak azaldu bezala, ZAEAk baliatutako aurkako antzeko argudioak gaitzetsi zizkion Estatuko Administrazioari. Horren guztiaren ondorioz, derrigorrez esan behar da Arbitraje Batzordeak ez daukala adierazpen lauso edo abstrakturik egiteko eskumenik, ZAEAk jarduketak eteteko betebeharra urratu duen ala ez ebazteko.

Aipatutako eskumen ezak egiaztatzen du mota horretako adierazpen batek baldintzatuko lukeela, jakina denez, organo eskumendunen erabakia, errekurtsio bidez, ZAEAREN jarduketak baliozkoak izan ote ziren ebazteko orduan, eta organoak ezin izango lukeela, inola ere, erabaki hori aurretiaz juzgatu arlo juridikoan. Bestela esanda, Arbitraje Batzordearen balizko erabakiak ez luke inolako eraginkortasun juridikorik, gai horri dagokionez.

Azkenik, esan behar da Ekonomia Itunaren 66.2 artikulua ezartzen duen jarduketak eteteko betebeharra baliozkoa dela legaren egintzaz eragindako administrazioentzat, gatazkari buruzko prozeduraren hasierari jarraiki, eta hortaz, ez dagokiola Arbitraje Batzordeari betebeharraren gauzapena kontrolatzea, ezta auzi horren gainean erabakitzea ere. Arbitraje Batzordeak gai horri buruzko irizpena eman zuen ERAKUNDE1 erakundeak 2008ko otsailaren 18an egindako galdera baten erantzunean, 8/2008 gatazkaren esparruan, non Arbitraje Batzordeari galdatzen zitzaion ZAEARI eskatzea jarduketak eteteko betebeharra bete bezala. Aipatutako erantzunean, 2008ko maiatzaren 12an, Arbitraje Batzordeko presidentek adierazi zuen batzordeak ez zeukala eskumenik eskatzen zitzaion errekerimendua egiteko, eta ondokoa azaldu zuen: "ez Ekonomia Itunaren 66.2 artikulua, ez abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen 15.1

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
<i>8/2008 eta 13/2010</i>	<i>R7/2013</i>	<i>2013/04/24</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Araudiaren gaineko eskumena. 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren ikuskapena eta ordainarazpena</i>

artikuluak (antzeko araua jasotzen duenak) esleitzen diote Arbitraje Batzordeari manu hori betetzeko arduraren gaineko eskumena; era berean, esan behar da betebeharra urratuz gero, sorraraz litezkeen ondorioak Arbitraje Batzorde honen eskumen esparrutik kanpokoak izango liratekeela".

Aurreko guztia aintzat hartuta, Arbitraje Batzordeak

## **ERABAKI DU**

ondokoa adieraztea:

1.a) ERAKUNDE1 erakundea (IFK: (LETRA)ZZZZZZZZ) Estatuko Administrazioaren araudiaren eraginpekoa zela 2002ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergari dagokionez.

2.a) Erakunde horren jarduera ikuskatzeko eskumena, aipatutako zerga-ekitaldietan, Estatuko Administrazioari zegokiola.